

XVII. Jagon Jardunaldiak:
euskararen geroa
Ipar Euskal Herrian

Baiona, 2011/XI/17

Euskera. 2012, 57, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

COYOS, Jean-Baptiste
Euskaltzaindiko Jagon sailburua

Euskaltzaindia hizkuntzaren corpusaz arduratzen da; bere helburuetan hizkuntza lantzea eta arautzea badira. Baina, halaber, euskararen estatus sozialaren arreta hartzen du ere (1920ko Euskaltzaindiaren sortarauak), euskararen sustatzea eta erabileraren zabaltzea, besteak beste. Hizkuntzaren kalitatea bermatzearekin eta hitzunen eskubideak zaintzearekin batera, horiek dira Jagon Sailaren eginkizun nagusiak.

Ildo honetan, urtero, Jagon Sailaren Sustapen batzordeak euskararen erabileraren nondik norakoak aztertzeko, Jagon jardunaldiak antolatzen ditu. 2011n Gasteizen izan ziren, euskararen egoera Araban ikertzeko. 2012an, XVII.ak Ipar Euskal Herrian antolatu zituen Euskaltzaindiak, azaroaren 16an, Paue eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatearen Baionako campusean.

Egun hartan, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin, *Euskarren oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian* izenburu pean, euskararen sustapenean ari diren elkarte eta erakundeekin batean gogoeta egin zuen Euskaltzaindiak. Helburua zen euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko lanean ari direnen ahaleginen, asmoen eta beharren azaltzea, lan horren ezagutarazteko eta, ahal den neurrian, norat jo behar zuen aurreikusteko. Hots, bigarren aldikoz, lurralde bateko hizkuntza-errealitatea aztertu zen.

Egitarauari dagokionez, bost zati izan ziren. Goizean V. Inkesta soziolinguistikoaren azterketa kualitatiboa proposatu zen, Ipar Euskal Herriko emaitzak euskararen eremu osoko testuinguruan kokatuz. Ondotik Euskal

Kultur Erakundeak euskararen balorazio kulturala eskaini zuen. Azkenik, hizkuntza politikaren eragile nagusiak biltzen zituen mahai-ingurua izan zen, euskara indarberritzeko hizkuntza politika aipagaiarekin. Arratsaldean, norbanako edo taldeko esperientzia azpimarragarri zenbait azaldu ziren: kantagintzan, bertsolaritza, irratigintza eta administrazioetako langileen euskalduntzean. Bururatzeko, Euskararen irakaskuntzan ari diren elkarte nagusiek irakaskuntza elebidunaren erronkak eztabaidatu zituzten.

Jardunaldietako akta hauetan saioetako testu horiek aurki daitezke: Erramun Baxoken «2011ko inkesta soziolinguistikoaren azterketa Ipar Euskal Herriko ikuspuntutik» txostena, Sébastien Castet Euskal Konfederazioaren idazkariak egin zuen 2011ko inkesta horri buruzko ekarpena, Pantxoa Etxegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariaren «Euskararen balorazio kulturala» txostena, «Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian» eta «Irakaskuntza elebidunaren erronka: hiztun osoak egitea» izenak zituzten mahai-inguruetako ekarpenak.

Euskaltzaindiaren izenean esker onak bihoazkie guztiei, jardunaldiak prestatzen lagundu zutenei, mintzaldietan eta eztabaidetan parte hartu zuten denei.

Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian ez ona izanik ere, erakutsi dute nola lan egiten zuten, zein ziren alde itxaropentsuak eta besteak, eta, aitzina begira, lan egiteko norabide berri eta eraginkorrak zoin izan zitezkeen.

Bai, *Euskera* barne-agerkariaren ikerketa-zenbaki honetako txostenek frogatzen duten bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarak geroa badauka.

2011ko inkesta soziolinguistikoaren azterketa Ipar Euskal Herriko ikuspuntutik

Estudio de la encuesta sociolingüística de 2011
desde la óptica del País Vasco Norte.

Etude de l'enquête sociolinguistique de 2011
sur le Pays Basque Nord.

Study of the 2011 sociolinguistic survey from the point
of view of the northern (French) Basque Country

BAXOK, Erramun
Ohorezko euskaltzaina. Soziolinguista.

Noiz jaso: 2013-05-29

Noiz onartua: 2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 1-2. 93-134. Bilbo
ISSN 0210-1564

Erramun Baxok hizkuntzalariak V. inkesta soziolinguistikoa irakurtzen du Ipar Euskal Herriari begira. Bost ikerketa eremu landu dira: hizkuntza gaitasuna, familia bidezko transmisioa, euskararen gizarte erabilera, euskararen aldeko motibazioa, euskararen prospektiba. 1991ko lekuko zaharra eta 2011ko lekuko gazteenaren artean euskaldun kopuruaren 85 urteko historia idatz daiteke. Euskararen gainbehera ez da bururatua. Baina oraingo hizkuntza politikak bultzatzen du elkarte eta erakundeen arteko lankidetzeta. Ondorioz garapen bat abiatua da 16-24 urtekoetan. Eskola bidezko transmisioa da nagusi, halere guraso gazteen jokabide linguistikoa hobetzen ari da euskararen onetan.

Hitz-gakoak: Ipar Euskal Herria, inkesta soziolinguistikoa, hizkuntza politika.

El lingüista Erramun Baxok analiza la V. encuesta sociolingüística mirando al País Vasco Norte. Se han trabajado en cinco ámbitos de estudio: competencia lingüística, transmisión familiar de la lengua, uso social del euskera, motivación a favor del euskera, prospectiva del euskera. Teniendo en cuenta al encuestado de más edad de 1991 y al más joven de 2011 se podría escribir la historia de los euskaldunes en los últimos 85 años. Parece ser que el retroceso del euskera no ha tocado suelo. Sin embargo la política lingüística actual fomenta la cooperación entre instituciones y asociaciones. Surgen además algunos datos esperanzadores: Entre los hablantes entre 16 y 24 años se está dando una evolución positiva. Básicamente a través de la transmisión en las escuelas, aunque es cierto que el comportamiento lingüístico de los jóvenes padres está cambiando en beneficio del euskera.

Palabras clave: País Vasco Norte, encuesta sociolingüística, política lingüística.

Le linguiste Erramun Baxok analyse la V^{ème} enquête sociolinguistique concernant le Pays Basque Nord. Cinq domaines ont été étudiés: compétence linguistique, transmission familiale de la langue, usage social de la langue basque, motivation en faveur de la langue basque, prospective de la langue basque. Les témoins les plus anciens de cette enquête étant de 1991 et les plus récents étant de 2011, on pourrait écrire l'histoire des Basques au cours des 85 dernières années. Il semble que la régression ne soit pas terminée. Cependant la politique linguistique actuelle incite à une coopération entre les institutions et les associations. De plus, des données encourageantes apparaissent: on remarque une évolution positive chez les jeunes entre 16 et 24 ans. Concrètement grâce à la transmission par l'école. Il est certain aussi que le comportement linguistique des jeunes parents se modifie au bénéfice de la langue basque.

Mots-clés: Pays Basque Nord, enquête sociolinguistique, politique linguistique.

The linguist Erramun Baxok offers a reading of the fifth sociolinguistic survey with regard to the French Basque Country. Five areas of research are reviewed: language competence,

language transmission within the family, societal use of Basque, pro-Basque motivation, the prospects for Basque. Between the oldest informant in 1991 and the youngest in 2011 85 years of the history of Basque speakers can be written. The decline of Basque has not yet bottomed out, but present-day language policy is promoting collaboration between public and private sectors. As a result, there is a positive change in 16-24 year olds. Transmission is primarily via education; nevertheless, young parents' language behaviour has improved in Basque's favour.

Keywords: Northern Basque Country, sociolinguistic survey, language policy.

Bosgarren inkesta soziolinguistikoa 2011n egin zen Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Iparraldean Euskararen Erakunde Publikoaren lankidetzarekin. Beste laguntzaileak ziren INSEE erakundea lagina antolatzeko eta SIADECO datuen biltzeko. Galdetegi berdina erabili da Euskal Herri osoan. Orotara 7.800 inkesta egin dira, 4.100 Euskal Autonomi Erkidegoan, 1.700 Nafarroan, 2.000 Ipar Euskal Herrian.

Ipar Euskal Herria 3 eskualde demografikotan zatitua zen: Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) 99.000 biztanle, Lapurdi bestalde 107.000 biztanle, Nafarroa Beherea eta Zuberoa elkarrekin 33.000 biztanle. Orotara 238.000 biztanle, 16 urte eta gehiagokoak.

Artikulu honetan emaitza nagusien irakurketa kritiko bat egingen dugu, inkestaren bost atalak landuz:

- hizkuntza gaitasuna;
- euskararen transmisioa familia, haurtzaindegia eta eskolaren bidez;
- euskararen erabilera bereziki gizartean;
- euskararen aldeko motibazioa: jarrerak, euskaltasuna;
- geroari buruzko itxaropenak eta beldurrak.

Aldi bakoitz, taula batzuen bidez, inkestaren emaitzak agertuko dira, noizean behin lotura eginez hizkuntza politikarekin.

Hizkuntza gaitasuna Euskal Herrian

Euskara Euskal Herrian zehar

Hona hemen euskaldunen argazkia herrialdeetan gaindi. Nafarroa Beherea eta Zuberoa ezin ditugu bereizi, inkestaren metodologiagatik.

Euskal Herriko euskaldungoa

Lurraldeak	Jendetza + 16 urte	Euskaldunak	Heina
Araba	272.000	46.000	%17
Bizkaia	1.000.000	254.000	%26
Gipuzkoa	602.000	300.000	%50
<i>Euskal Autonomia Erkidegoa</i>	1.874.000	600.000	%32
Lapurdi	206.000	34.000	%17
Nafarroa Beherea – Zuberoa	32.600	17.000	%52
<i>Ipar Euskal Herria</i>	238.600	51.000	%22
Nafarroa	537.000	63.000	%12
EUSKAL HERRIA	2.649.600	714.000	%27

Hiztegi problema bat trenkatu behar dugu. Orain arte «elebiduna» zen Hegoaldeko bi hizkuntza ofizialak zekizkiena eta «erdalduna» elebakarra zen. Gaur egun euskaldun elebakarrak desagertu dira eta erdaldunak ere gero eta gehiago «elebidun» dira ingelesarekin edo etorkin hizkuntza batekin. Idazki honetan «euskaldunak» eta «erdaldunak» aipatuko ditugu, hots euskara dakitenak edo ez dakitenak.

Gaur egun, Ipar Euskal Herriko 16 urte eta gehiagoko jendetzan, euskaraz ongi edo aski ongi mintzatzen garenok 51.100 gara (%21,4). Elebidun hartzaileak, euskara ulertzen dutenak eta doi bat mintzatzen 22.000 dira (%9). Erdaldunak 105.000, (%9,4). Beste lurraldeetan zer gertatzen da? Proporzioz Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira herrialde euskaldunenak (%52). Noiz arte, 20 urtez bi herrialde hauen euskaldunak %10ez gutitu delarik? Gaur egun Lapurdi eta Araba hein berean daude %17. Duela 20 urte Lapurdin euskaldunak %27 ziren eta Araban %7. %10 galtzea alde batetik eta hein bereko irabazia bestetik.

Euskararen garapena EAEn gertatu da gehienik. 20 urtez euskaldunak 185.000 gehiago dira eta heina %24tik %32ra igan da.

Oro har Euskal Herri osoan 20 urtez jendetza milioi batez emendatu da eta euskaldunen kopurua 530.000tik 714.000ra igan da, beraz 184.000 eus-

kaldun gehiago. Proportzioa ez da biziki mugitu, euskaldunak 1991n %30 ginen, gaur egun %27 gara.

Hizkuntza gaitasuna eskualdeka

BAB eskualde jendetsuena da baina ez euskaldunena. 99.000 hiritarretan, 8.600 euskaldun dira (%9) eta 6.000 erdi-euskaldun (%6) Orotara %14 euskara ongi edo doi bat dakitenak. Haatik hiritar gehienak erdaldunak dira (%85).

Gaineratiko Lapurdin 107.000 herritar bizi dira eta hauetan 25.600 euskaldun (%24) eta 11.200 erdi-euskaldun (%11). Erdaldunak 70.000 (%65).

Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira herrialde euskaldunenak baina ahulena demografiaren aldetik. Elkarrekin 32.600 herritar dira eta hauetan 17.000 euskaldun (%52), 4.600 erdi-euskaldun (%14) eta 11.000 erdaldun (%34).

Hizkuntza gaitasuna Ipar Euskal Herrian

	Ipar Euskal Herria 238.600	BAM 99.000	Lapurdi bestalde 107.000	Nafarroa B. Zuberoa 32.600
Euskaldunak	51.400 %22	8.600 %9	25.800 %24	17.000 %52
Elebidun hartzaileak	21.800 %9	6.000 %6	11.200 %11	4.600 %14
Erdaldunak	165.400 %69	84.400 %85	70.000 %65	11.000 %34

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Eskualdeka, euskaldunak eta elebidun hartzaileak elkartzen baditugu Baionaldea da gutienik euskalduna: nolazbait elebidunak %15 dira. Hiztunak molde berean zenbatuz, Lapurdi barnean heren bat elebidun eta bi heren erdaldun dira, Nafarroa Beherean eta Zuberoan aldiz bi heren elebidun eta heren bat erdaldun.

Jendetza kontuan hartuz, non bizi dira Iparraldeko euskaldun multzoak?

- 25.500 euskaldun eta 11.200 erdi-euskaldun Lapurdi barnealdean.
- 17.000 euskaldun eta 4.600 erdi-euskaldun Nafarroa Beherean eta Zuberoan.
- 8.600 euskaldun eta 6.000 erdi-euskaldun Baiona-Angelu-Biarritzten.

Non daude euskaldunak? %50 Lapurdi barnealdean, %30 Nafarroa Beherean eta Zuberoan, %20 Baionaldean.

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera %

Adin-taldeak Sorturtea +/- Jendetza	Ipar EH 2011	65 eta + 1939	50-64 1954	35-49 1969	25-34 1982	16-24 1991
	238.360	62.266	55.710	61.365	32.056	26.964
Euskaldun	22	31	24	15	14	18
Ele. hartzaile	9	8	7	10	12	11
Erdaldun	69	61	69	75	74	71

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Euskaldunen kurba gain behera doa lau adin-talde zaharretan, %31tik (1939an) %14ra (1982an) eta gorantz abiatzen da adin-talde gazteenarekin %17,6 (1991n).

Elebidun hartzaileen kurba oso ezberdina da. Gainbehera bi adin-talde zaharreneen artean, gero behetik gora bitarteko 3 adin-taldeetan %12,3 arte 25-34 urtekoetan (1982). Bururatzean gainbehera ttipi bat adin-talde gazteenarekin (%11,3).

Elebidun guziak elkartuz, kurba itxaropentsua dugu: gainbehera %38tik %25 arte. Bihurgunea 35-46 urtekoekin. Eta gero behetik-gora %25etik %29 arte adin-talde gazteenean. Erdaldunen kurba alderantzizkoa da. Pe-

tik gora %62tik %75era (1969an) eta gero gainbehera %75etik %71ra adin-talde gazteenean.

Hizkuntza gaitasuna bost inkestetan zehar

Hona hemen bost inkesta soziolinguistikoen taula konparatiboa. Lehen inkestaren emaitzak zuzendu ditugu. Alabaina emaitza ofizialetan 1991 eta 1996 artean 13.000 euskaldun galdu ziren. Ez zen sinesgarri. 1991ko adin taldeak berriz zenbatu ziren II., III. eta IV. inkestetan eta zenbaketa horren arabera euskaldunen kopurua 69.000tik 60.000ra jautsi zen 1991koan.

Jendetza 16 urte eta +	1. 1991 208.900 h.	2. 1996 212.400 h.	3. 2001 221.600 h.	4. 2006 230.200 h.	5. 2011 238.360 h.
Euskaldunak	59.900 %28,7	56.100 %26,5	54.600 %24,7	51.800 %22,5	51.100 %21,4
Elebidun hartzaileak	17.900 %8,5	19.800 %9,3	26.400 %11,9	19.800 %8,6	21.700 %9,1
Erdaldunak	151.100 %62,8	136.500 %64,2	140.600 %63,4	158.600 %68,9	165.560 %69,5

Bost inkestak konparatzen baditugu zer agertzen da? Euskaldunen ehunekoak gainbehera doaz etengabe %29, %27, %25, %22,5, %21,4. Orain arte inkesta batetik bestera euskaldunen kopuruak 2 puntu galtzen zituen baina azken aldian puntu bakar bat. Zenbaki gordinetan, bost inkestak konparatuz, 20 urtez jendetza 30.000 biztanlez goratu da. Denbora berean 8.800 euskaldun gutiago gara, hots urtero 450 gutiago. Ulergarri da, kanpotik erdaldun anitz etortzen baita, hemen bertako sortzeak ez direlarik biziki nasaiak.

Bestalde 3.800 elebidun hartzaile gehiago dira. Ulergaitz da nola elebidun hartzaileen kopurua bat-batean anitzez gutitu den, hamar urtez goratzen ari zelarik. Galdeen ulermen problema bat baditaike «doi bat» eta «hitz batzuk» dakitenen artean. Bien arteko muga malguak baldintzatzen du elebidun

hartzaileen kopuru aldakorra. Azken bost urte hauetan, elebidun hartzaileen garapena kontuan hartuz, euskaldunen eta erdi-euskaldunen kopurua goratu da 1.200 hitzunez: 2006an 71.600 elebidun, 2011an 72.800 elebidun.

Denbora berean erdaldunen kopurua ere handitu da, 5 urtez jendetza 8.000 herritarrez emendatu baita. Oro har 20 urtez erdaldunen kopurua emendatu da 15.000 hitzunez, halere jendetza baino askoz gutiago.

Euskaldunen gaitasun erlatiboa adin-taldeka

Euskaldunei galdegin zaie zein hizkuntza mintzatzen duten errazkienik, euskaraz, erdaraz ala bietan berdin. Hizkuntza trebetasunaren arabera hiru elebidun kategoria baditugu: euskal elebidunak, erdal elebidunak eta elebidun orekatuak.

Adin-talde zaharretik gazteeneraino euskaraz trebeago direnen heina eten gabe gainbehera doa eta alderantziz frantsesez trebeago direnen heina petik-gora. Elebidun orekatuen kurba kasik beti %42 inguru dago eta hein gorenean, salbu adin-talde gazteenean. Itxuraz hizkuntzen arteko oreka eskolako ikaskuntzaren ondorioa da eta egoera hau kezagarria da geroari buruz.

Gaitasun erlatiboa adinaren arabera (%)

Adin taldeak	Iparralde	65 eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskal elebidunak	23	32	23	15	17	12
Elebidun orekatuak	43	42	42	47	43	38
Erdal elebidunak	34	26	35	38	40	50

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Adin-talde gazteenaren egoera oso berezia da: euskal elebidunen heina apalenean da, %12, bost puntu galduz 25-30 urtekoei konparatuz. Aldiz erdal elebidunen heina gorenean da, %50ean, 10 puntuz goratuz. Elebidun orekatuen heina doi bat apaldu da (%38,5). Itxuraz gazteak irabazle dira

euskaldunen kopuruaren aldetik, baina galtzaile euskararen kalitatearen aldetik. Gertatzen dena da elebidunek hizkuntza trebeena erabiltzen dutela.

Gaurko hizkuntza politikaren helburu nagusia «hiztun osoak» formatzea da. Gaitasun erlatiboaren datuetan ageri da hizkuntzaren kalitatea gainbehera badoala. Zer egin? 2008an onartu zen euskal irakaskuntzaren 2. atala «egituraketa kualitatiboa». Dokumentu hau botere publikoen bigarren bide orri nagusia da irakaskuntzaren alorrean eta zazpi norabide definitzen ditu: lehen mailan gaitasun heinak definitzea, irakasleen formakuntza, eskola elebidunetako irakaskuntzen antolaketa, kolegioan eta lizeoan irakaskuntza elebiduna indartzeko plana. Ondorioz, kalitatearen egituratzean indar gehiago emateko xedea da, murgilbidea garatuz ama-eskola guzietan eta euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz kolegioetan.

Euskararen familia bidezko transmisioa

Euskara nola jarraitzen den familiaren bidez ikertu da lau puntu landuz: lehen hizkuntza, hizkuntzen bilakaera, gurasoen jokamoldea eta haurtzaindegien eragina.

Lehen hizkuntza

Galdera zen inkesta egin zaionarentzat zein izan zen lehen hizkuntza haurtzaroan, 3 urte ukan arte, etxean. Ama-hizkuntza izan daiteke euskara, frantsesa edo biak. Noizean behin agertzen da kanpoko beste hizkuntza bat.

Lehen hizkuntza adinaren arabera aztertzen bada ikusten da, 3 urte arte etxean euskaraz bakarrik mintzatu diren euskaldunen heina gainbehera doala zaharrenetarik gazteenetara %30etik %8ra. Jatorriz frantsesez mintzatu direnen kopurua petik gora %64tik %86ra. Haurtzaroan bi hizkuntzak erabili dituztenen heina berdintsu egon da adin-talde oroz, %5,5 inguru.

Orokorki Ipar Euskal Herrian %20 haurrek lehen hizkuntza euskara bakarrik ukan dute eta euskara frantsesarekin %5ek. EAEn %18 sortzez euskaldun eta %5 elebidun. Nafarroan %6 eta %3 hurrenez hurren.

Lehen hizkuntza adinaren arabera (%)

Adin-taldeak Sorturtea +/-	Ipar EH 2011	65 eta + 1939	50-64 1954	35-49 1969	25-34 1982	16-24 1991
Lehen hizkuntza						
euskara	20	30	23	16	10	8
euskara + frantsesa	5	6	4	5	8	6
frantsesa	75	64	73	79	82	86

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Hizkuntzen mugikortasuna**Hizkuntza gaitasuna lehen hizkuntzaren arabera**

Hizkuntza gaitasunak	Iparalde 2011	Lehen hizkuntzak		
	Orotara 238.360	Euskara 46.478	Biak 12.930	Frantsesa 178.952
Euskaldunak	51.100 %22	37.639 %81	6.687 %52	6.774 %4
Elebidun hartzaileak	21.742 %9	6.508 %14	3.132 %24	12.102 %7
Erdaldunak	165.518 %69	2.331 %5	3.112 %24	160.075 %89

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Taula honetan emaitzak gainbehera irakurri behar dira. Hizkuntza gaitasunak (euskaldun, elebidun hartzaile ala erdaldun) lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaraz sortu direnak euskaldun dira %81 (jatorrizko euskaldunak edo euskaldun zaharrak) eta frantsesez sortu direnak frantsesdun oraino gehiago handiagoan %89,6 (jatorrizko erdaldunak edo erdaldun be-

riak). Jatorrizko elebidunek dute hizkuntza egoera hauskorrena. Erdiek euskara atxiki dute, beste erdiek erdaldun edo elebidun hartzaile bilakatu dira neurri berdintsuan. Ohargarri da jarraipen linguistikoa dela joera indartsuena.

Ehuneko bertikalean ez, baina zenbaki gordinetan gehiago dira euskaldun berriak (6.774) ezen ez? eta erdaldun berriak (2.331). Molde berean gehiago dira euskalduntzen ari diren jatorrizko erdaldunak (12.102) ezen ez eta erdalduntzen ari diren jatorrizko euskaldunak (6.508). Beraz oro har euskara irabazle ateratzen da. Baina frantsesa ez da galtzaile, euskaldun guziak elebidun baitira.

Euskararen galtze irabaziak adinaren arabera

Oraingo hizkuntza gaitasuna lehen hizkuntzarekin konparatuz, sei hiztun kategoria agertzen dira: jatorrizko euskaldunak eta euskaldun berriak, euskalduntzen edo erdalduntzen ari diren elebidun hartzaileak, jatorrizko erdaldunak eta erdaldun berriak. Zenbakiak erakusten dute hizkuntzaren jarraipena dela gertakizun nagusia. Euskararentzat irabazi osoak euskaldun berriak dira eta galtze osoak erdaldun berriak. Irabazi partzialak euskalduntzen ari direnak dira eta galtze partzialak erdalduntzen ari direnak. Ezberdintasun handiak badira adin-taldeen arabera.

Hizkuntzen bilakaera adinaren arabera

Hizkuntzen bilakaera	Orotara 238.360	65 + 62.266	50-64 55.710	35-49 61.365	25-34 32.056	16-24 26.963
Jatorrizko euskaldunak	18,6	29,8	21,7	12,6	9,5	10,8
Euskaldun berriak	2,8	0,8	2,7	2,5	4,4	6,8
Euskalduntzen	5,1	3,8	3,4	5,1	7,1	9,0
Erdalduntzen	4,0	3,8	3,8	4,8	5,2	2,3
Erdaldun berriak	2,3	2,3	2,0	3,2	2,7	0,3
Jatorrizko erdaldunak	67,2	59,5	66,5	71,9	71,0	70,8

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren eta EEP, 2011.

Tipologia honek adierazten du euskararen bilakaera adinaren arabera. 65 urtez goragokoetan euskaldun zahar anitz (%29,8) eta euskaldun berri guti (%0,8). Alderantziz 16-24 urtekoetan euskaldun zahar gutiago (%10,8) eta euskaldun berri gehiago (6,8) eta erdaldun berririk ia batere ez (%0,3). Euskarak irabazi gehiago egiten du adin-talde gazteenetan. Hurbilagotik azter dezagun hizkuntzen mugikortasuna hiztun gazteenengan.

Hizkuntzen bilakaera Iparraldeko gazteengan

Lehen hizkuntza	Hizkuntzen bilakaera 2011n: 16-24 urtekoak	Ondorioak
Euskara 1.H 3.610 = %13,4	Euskaldunak + Euskaldun + Euskalduntzen jatorriz berriak ari direnak 2.915 = %10,8 + 1.822 = %6,8 + 2.438 = %9	Euskaldungo dinamikoa 7.175 = %26,6
Frantsesa 1.H 23.353 = %86,6	Erdaldunak + Erdaldun + Erdalduntzen jatorriz berriak ari direnak 19.093 = 70,8 + 77 = %0,3 + 618 = %2,3	Frankofonia elebakarra 19.788 = 73,4%
Hiztunak orotara 26.963 = %100		Hiztunak orotara 26.963 = %100

Biribil ditzagun zenbaki gordinak ikusteko zer gertatzen den 16-24 urtekoekin. 27.000 dira. Hiru urtetan 3.600 euskaldun ziren (%13). Gero zer bilakatu dira? 3.000 jatorrizko euskaldun dira, 2.000 euskaldun berri, 2.000 euskalduntzen ari. 16 urtetan 7.000 euskaldun eta elebidun hartzaile. Euskaldun kopuru dinamikoa haurtzarotik gaztarora %13tik %27ra igan da. Bikoiztu beraz.

Bestalde hiru urtetan 23.000 erdaldun ziren (%87). Gero zer bilakatu dira? Erdaldungo elebakarra haurtzarotik gaztarora %87tik %73ra jautsi da, %13 gutiago. Gazteengan hizkuntzen bilakaera euskararen alde mugitu da molde indartsuan.

Zein da euskaldun gaztearen argazkia? Euskaldun berri anitz eta erdalduntzerik ez. Euskalduntzen ari direnak erdalduntzen ari direnak baino lautan gehiago. Gazteenengan hizkuntzen bilakaera euskararen alde mugitu da molde indartsuan. Haurtzarotik gaztarora euskaldunen heina bikoiztu da eta erdaldunen heina araberan gutitu (-13%). Lehen familia bidezko transmisioa nagusi

zen, orain eskola bidezko transmisioa eraginkorrago da. Agian eskolako dinamikaren bidez familiako transmisioa berpiztuko da datorren belaunaldian.

Gurasoen jokamoldea

Gurasoak 3 kategoriatan sailkatzen ditugu:

- gurasoak orokorki, eta hauen artean
- guraso gazteagoak (seme-alabek 2-15 urte), eta hauen artean
- guraso gazteenak (seme-alabek 2-9 urte)

Haurren lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Lehen hizkuntza:	Guraso euskaldunak			
	Orotara	Biak	Bat	Batere ez
Haur oro	(238.000)	(67.660)	(33.564)	(137.136)
euskara;	%20	%68	%1	
euskara frantsesarekin;	%5	%12	%14	
frantsesa bakarrik.	%75	%20	%85	%100
Haurrek 2-15 urte	(848)	(118)	(146)	(614)
euskara;	%5	%54		
euskara frantsesarekin;	%11	%33	%56	%1
frantsesa bakarrik.	%84	%13	%44	%99
Haurrek 2-9 urte	(486)	(65)	(90)	-331
euskara;	%6	%59		
euskara frantsesarekin;	%14	%35	%65	%1
frantsesa bakarrik.	%80	%6	%35	%99

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritz eta EEP, 2011.

1. Lehenagoko bikoteetan biak euskaldun zirelarik %80 haurren lehen hizkuntza euskara zen (%68rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %20rentzat.

Guraso bat euskaldun zelarik %15 haurren lehen hizkuntza euskara zen frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %85rentzat.

Bi gurasoak erdaldun zirelarik, haur guzien lehen hizkuntza frantsesa zen bakarrik.

2. Bikote gazteagoetan biak euskaldun direlarik %87 haurren lehen hizkuntza euskara da (%54rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %33rentzat.

Guraso bat euskaldun delarik %56 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %44rentzat.

Bi gurasoak erdaldun direlarik, lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik %99 haurrentzat eta euskara frantsesarekin ehuneko batentzat.

3. Bikote gazteenetan biak euskaldun direlarik %94 haurren lehen hizkuntza euskara da (%59rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %6rentzat.

Guraso bat euskaldun delarik %65 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %35rentzat.

Bi gurasoak erdaldun direlarik, lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik %99 haurrentzat eta euskara frantsesarekin ehuneko batentzat.

Laginarene aldetik 3. multzo honetako emaitzak dudazkoak badira ere, itxuraz, familia bidezko transmisioa hobetuz doa, bikote euskaldunekin, bai eta euskaldun-erdaldun bikoteekin ere:

- bikote euskaldunekin, haurrak euskaldunak dira %80, 87, 94;
- euskaldun-erdaldun bikoteekin ere haurrak elebidunak dira %15, 56, 65.

Familia bidezko transmisioa Hizkuntza Politika Proiektuaren lehen eronka da: «familia, euskara transmititzeko tresna estrategiko gisa mobilizatzea». Horretarako norabide estrategikoak ziren familiak laguntzea euskara jarraikiarazten: gurasoen hizkuntza gaitasuna hobetuz, lagungarri diren tresnak eta baliabideak sortuz, esperientzia eraginkorrak trukatzuz.

Euskararen Erakunde Publikoaren eragina zeharkakoa izan da: alde bate-tik proiektu deialdien bidez, guraso elkarteek parte hartzen dute eskola in-guruan antolatzen diren euskararen erabiltzeko ekintzetan. Ondorioz esko-

la eta familien arteko sinergia motibazio nagusi bat bilakatu da euskara jarraikiarazteko. Bestalde, hizkuntza teknikariek, Herri Elkargoen onarpenarekin, sentiberatze ekintzak eraman dituzte aita-ama berriekin eta gurasogaiekin: informazioak, opari pedagogikoak eta beste.

Hautzaindegiak eta etxe hartzainak

Lehen hartzaroa hizkuntza politikaren bigarren erronka nagusia da: lehen hartzaroko egiturei eta profesionalei euskararen transmisioa susten-gatuko duen zerbitzua eskaintzea. Norabide estrategikoa da lurralde osoan familiei beren haur ttipientzat euskarazko zerbitzuak eskaintzea hartzaindegi sarean, bai eta ama-laguntzaileen edo etxe hartzainen bitartez ere. Gainera, beharrezkoak dituzten konpetentziak eta tresna pedagogikoak eskaintzea. Zer da gauzaturik?

Lehen lana izan zen egitura bat eraikitzea, politika publikoa garatzeko gai honi buruz. Ondorioz euskarazko hartzaindegi «labelizatuen» egitura bat sortu da, lehen hartzaroaren harrera kolektiboen eremuan, irakaskuntzako ereduaren antzekoa. Partaidetza hitzarmen baten bidez, familien laguntzaz arduratzen diren erakundeek onartu dute eta jadanik lurraldeko harrera-etxe publiko eta pribatu batzuek labelizazioa erdietsi dute.

Geroari buruz etxe hartzainen sare bat antolatzen ari da. Jadanik diagnosari bat egin da: etxe hartzainek haurren %90 zaintzen dituzte eta anitzek euskara badakite. Inkesta baten bidez jakinen da zein diren euskaraz lan egiteko gogoia dutenak.

Transmisioa eraginkortzen segitu behar da familia bidezko transmisioa beste transmisio bideekin uztartuz, kate oso bat indarrean ezarri, etxean, hartzaindegian, eskolan.

Euskararen erabilera

Inkestan euskaldunen mintza-jokabidea aztertu da bost mintzamolde bereiziz, bi hizkuntzen kantitate erlatiboaren arabera. Hemen hiru mintzamolde laburbildu ditugu:

- euskal mintzamoldea beti euskaraz ari denarena, euskaraz frantsesez baino gehiago edo berdin bi hizkuntzetan;
- noizean behingo euskal mintzamoldean aldiz euskara frantsesa baino gutiago erabilia delarik edo oso gutiago;
- erdal mintzamoldea beti frantsesez ari denarena edo ia beti.

Euskararen erabilera harreman eremuetan

Hemen kontuan hartzen ditugu Ipar Euskal Herriko 51.100 euskaldunak. Hiru harreman eremu aztertu dira: familia, gizarte hurbila eta zerbitzu publikoak.

Euskaldunen mintzamolde harreman eremuetan (%)

Harreman eremuak	Euskaraz gehiago edo berdin	Euskaraz gutiago edo oso gutiago	Beti edo ia beti frantsesez	Euskararen heina
Etxean	49	22	30	43
Bikotean	45	17	37	40
Seme alabekin	48	16	37	42
Gurasoekin	63	12	25	53
Anai-arrebekin	59	12	28	51
Aiton-amonekin	59	13	28	51
Lagunartean	64	21	15	54
Auzokoekin	47	15	38	39
Lankideekin	59	15	26	49
Ikaskideekin	31	9	61	26
Saltegietan	28	19	53	25
Udaletxean	37	16	47	32
Administrazioan	2	5	92	2

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Azken zutabean hitzun guzien hizkuntza erabilera kuantifikatu da. Mintzamolde ezberdin bakoitzean euskararen heina neurtu dugu:

- beti euskaraz = %100 euskaraz,
- euskaraz frantsesez baino gehiago = %75 euskaraz,
- euskaraz frantsesez bezainbat = %50 euskaraz,
- euskaraz frantsesez baino gutiago = %25 euskaraz,
- beti frantsesez = %0 euskaraz.

Adibidez «etxean euskararen heina %43» delarik, erran nahi da familiako hiztunen solasaldietan %43 euskaraz egiten direla oro har eta ondorioz %57 frantsesez. Molde honetan ohartzeko gara zenbat euskara entzuten den, hemen euskaldunen artean, beste taula batean herritarren artean.

Familian - Euskaldunek familian dute euskara gehienik erabiltzen eta euskal mintzamoldea da nagusi bereziki seme-alaben aldetik, aita-amekin (%63), aitaxi-amatxiek (%59) eta beren artean (%59). Askoz euskara gutiago gurasoek beren artean (%45) edo haurrekin (%45) eta familia osoa bildua delarik (%43). Dena dela, erdarazko solasaldien proportzioa laurdena eta herenaren artekoa da. Oro har euskarazko solasaldien heina %40 ingurukoa da jende helduen artean, %50 baino gehixeago gazteagoekin, denak euskaldunak direlarik.

Gizarte hurbilean - Lagunartean da euskaraz gehienik mintzatzen (%64). Gutxiago auzokoen artean (%47). Langileek beren artean euskaraz gehiago hitz egiten dute (%59) ezen ez eta ikasleek beren artean (%31). Oro har gizarte hurbileko euskararen heina familiakoarekin konparagarria da, salbu ikasleengan. Beharrezkoa da ikaskuntza erabilerarekin uztartzea.

Hizkuntza formala - Zerbitzu publikoen eremua basamortua da euskararentzat, salbu herriko etxeak (%37) eta auzoetako saltegiak (%28). Euskaldunek frantses hutsa erabiltzen dute maizenik, banketxeetan ala osasun zerbitzuetan (%74 eta %69). Administrazio publikoetan ez da euskararik entzuten. Konparazio honek erakusten du onarpen ofizialaren beharra euskararen garapenerako.

Herriko etxeen jarrera baikorrak azterketa berezia merezi du. Udaletxeak dira zerbitzu publikoa ematen dutenak, kanpaina zerrenda luze baten ondorioz. 1950 inguru, Euskaltzaleen Biltzarrak herriko etxeak bultzatu zituen

herrien euskarazko izenak seinaleetan jartzera. 1978an Euskaltzaindiak antolatu zuen «Bai Euskarari» kanpaina, arrakasta handiarekin, Telesforo Monzon, Peio eta Pantxoaren kantu famatua lekuko. 1990ean Euskal Kultur Erakundeak «Euskara Agerian» ekimena abiatu zuen Euskal Kultura sustengatzen duen Herriarteko Sindikatuarekin, udaletxe barneko harrera eta bide bazterretako seinaleak euskaldunduz.

Elkarteen aldetik, 1979az geroztik ikusten ziren Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ekintzak, euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz. 1999an eta gero eraman ziren Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren «Bai euskarari» kanpaina eta orain «Bai euskaraz». 2001ean Euskal Konfederazioak lagundu zuen «Euskararen presentzia sustatu Herriko Etxeetan» dokumentua zabaltzen, bildumak eta erabaki ofizialak bi hizkuntzetan agertzeko. «Demo»-en ekimen ikusgarriak bestalde.

Urrats handi bat egin zen Euskararen Erakunde Publikoak 2006an teknikarien sarea muntatu zuelarik tokiko elkargoen partaidetzarekin, hizkuntza politika bat eskualdeka antolatzeko. Sare honek bide asko irekitzen ditu: ekimenak ugaritu daitezke; politika publikoa molda daiteke tokiko egoeraren arabera; herriko etxeak inplika daitezke euskararen aldeko urraspide orokorrean, familia bidezko transmisioa, haurtzaindegiak, eskola elebidunak. Teknikarien sarea urratsez urrats zabaltzen ari da eskualde guzietan eta atxikimendu handia dauka, dispositiboan engaiatuak diren herri elkargoegandik.

Hizkuntza erabileraren sintesia hiru eremuen bilduma eginez

Euskaldunen mintza-jokabidea. Hiru harreman eremuak banan-banan aztertu ondoren, hiruen arteko sintesia egin da, 1991n asmatu zen «Etxea-Laguna-Formala» tipologiaren bitartez. Eremu formala publiko zabalari buruzko zerbitzuena da. Lehenik azter dezagun euskaldunen mintza-jokabidea eta gero herritar oreana.

Euskaldunen mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak Euskaldunak	Iparralde 51.100	65 eta + 19.059	50-64 13.566	35-49 9.268	25-34 4.470	16-24 4.737
Euskaraz gehiago edo berdin	45	54	42	39	43	29
Euskaraz (oso) gutiago (Ia) beti frantsesez	46 9	36 10	46 12	56 5	53 4	67 4
Euskararen heina	36	39	34	33	35	31

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren EEP, 2011.

Adin-talde zaharretik gazteeneraino, euskara frantsesa baino gehiago edo berdin erabiltzen duten euskaldunen proportzioa gainbehera doa eten gabe, %54tik %29ra. Haatik hobekuntza bat ageri da oraingo gurasoengandik (%43). Aldiz euskara frantsesa baino gutiago eta oso gutiago erabiltzen dutenen heina petik gora doa orokorki %36tik %67ra. Beti frantsesez ari direnen neurria gorabehera dabil %10etik %4era. Adin tarte orotan euskarazko mintzaldien neurria herenaren ingurukoa da, hiztun hauek euskaldunak direlarik.

Bi adin-talde gazteenen lagina ahula delako, ez da fidagarria. Halere itxuraz noizean behingo euskal mintzamoldea nagusitzen ari da, eta denbora berean erdal mintzamoldea («beti frantsesez») apalenean dago. Itxuraz euskaldun berrien jokamoldea ageri da: hizkuntza gaitasun mugatua dute baina euskarari buruzko atxikimendu kartsua erakusten dute.

Euskararen tokia gizartean. Orain arte ikusi dugu euskaldunek zein neurritan erabiltzen duten euskara, jakinez erdaldunek ezin dutela euskara erabili ez baitute hizkuntza hauturik. Halere balio du biztanleria osoa aztergai-tzat hartzea, ikusteko euskaraz zer toki daukan gizartean. Asmagarri da ondorioak ahulak izanen direla erdaldunen kopuruagatik.

Herritarren mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak Hiztunak	Orotara 238.360	65 eta + 62.266	50-64 55.710	35-49 61.365	25-34 32.056	16-24 26.964
Euskaraz gehiago edo berdin	10	17	10	6	6	5
Euskaraz (oso) gutiago Beti frantsesez	13 77	12 71	14 76	12 82	16 78	15 80
Euskararen heina	8	12	9	6	7	6

Iurria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Adin-talde zaharrenetik gazteeneraino ageri da euskal mintzamoldea gutituz doala %17tik %5eraino. Noizean behingo euskal mintzamoldea berdintsu dago adin oroz %13ren inguruan. Erdal mintzamoldea da nagusi adin-talde guzietan, bereziki 50 urtez gazteagoetan. Ikusi dugu biztanleen %69 erdaldun elebakarrak direla.

Hiru inkestaren konparazioa

2001, 2006 eta 2012ko inkestak konpara ditzagun euskaldunen mintza-jokabidearen bilakaera aztertzeko.

Euskaldunen mintzamoldeak azken 3 inkestetan

Inkestak Euskaldunak	2001 55.700	2006 51.800	2011 51.100
Euskaraz gehiago edo berdin	22.300 %40	23.450 %45	22.820 %45
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	27.300 %49	21.250 %41	23.810 %46
Beti frantsesez	6.100 %11	7.100 %14	4.470 %9
Euskararen heina	33,6	35,3	36,1

Ohargarri da euskaldunen kopurua gutituz doala baina euskaraz frantsesez bezainbat edo gehiago mintzatzen diren heina goratzen ari dela, inkesta batetik bestera Ipar Euskal Herri osoan (%40, %45, %45) eta bereziki gazteenengan (%15, %24, %29), hurrenez hurren. Beste mintzamoldeak gorabehera dabilta eta beren bilakaeran ez da joera argirik agertzen. Oro har, euskarazko solasaldien proportzioa goratu da inkesta batetik bestera, here-naren heina doi bat gaindituz.

2011ko inkestan euskal mintzamoldea eta noizean behingoa neurri bertsuan dira (%45 – %46) eta erdal mintzamoldea apalenean dago. Ondorioz euskarazko solasaldien heina gorenean dago (%36,1), euskaldun gazteen eraginez, beste ikerketa batek erakusten duen bezala.

Erabileraren pedagogia

Iñaki Martínez de Luna hizkuntzalariaren arabera, euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak hiru motakoak dira: pertsonalak (gaitasuna, motibazioa), kolektiboak (harreman sareak) eta juridikoak (hizkuntzaren estatusa). Eskema hau egiazta daiteke V. Inkesta soziolinguistikoaren bidez.

1. Norberaren ezaugarri nagusia hizkuntza-gaitasuna da. Ongi eta biziki ongi dakitenek dute euskara erabiltzen. Hots euskal elebidunek, euskaraz frantsesez baino trebeago direnek. Adibidez euskararen erabilera sintetikoa ikertzen delarik euskaldunengan batez beste %45 dira euskaraz frantsesez bezainbat edo gehiago mintzatzen direnak. Zehazkiago nor dira hiztun hauek hizkuntza gaitasun erlatiboa kontuan hartuz? Euskaraz errazkiago hitz egiten dutenak %91 dira, elebidun orkatuak %51 eta erdal elebidunak %6. Pedagogia problema da nola igan euskara jakitetik euskara erabiltzen jakitera. Arrue inkestakari Mikel Zalbidek erabili du txirrindulariaren alegoria: irabazteko ez da aski bizikletaren mekanika ezagut dezan, gainean ibiltzeko estrategia jakin behar du. Ikastetxean euskara ikasi behar da, gramatika eta beste, baina bereziki euskara nola erabil eskolan eta eskolatik kanpo. Dena dela erabiltzeko trebe izan behar da eta trebatzeko erabili behar

da. Gurpil zoro hortarik ateratzeko bidea motibazioa da, atxikimendu pertsonala, motibazio kolektiboa eta borondate politikoa.

2. Harreman sareak bi moldetara uler daitezke: edo molde demolinguitikoan eskualde batean euskaldunek daukaten dentsitatea (euskaldun batek errazkiago aurkituko du mintzakide bat Garazin ezen ez eta Baiernaldean); edo molde sozio-psikologikoan euskaldunek elkarrekin nahiz josten dituzten loturak, bikoteak, lagunarteak, kantu, dantza edo antzerki elkarteak, politika edo ekonomia egiturak. Hirigune erdaldunetan euskaldunek «euskal oasiak» antolatu behar dituzte non ere erraz eta atsegin baita euskaraz hitz egitea. Kultur ekintza, jatetxe, saltegi ala jaiegun zernahi on da, ez ghetto moldean baina elkarretaratzeak irekiz.
3. Hizkuntzak gizartean daukan estatusa baldintza nagusi bat da hizkuntza baten erabileran. Oinarrizko legearen onarpena falta bada, Iparraldean gertatzen den bezala euskararentzat, erakundeek eman behar diete herritarrei herri hizkuntza erabiltzeko aukera eta erraztasuna. Orduan euskarak «de facto» hartzen du onarpen eta ospe publikoa, «de jure» onartua izan arte. Gaur egun dena da auzitan, irakaskuntzaren legea, lurraldearen elkargo administratiboa eta Europako herri hizkuntzen itunaren berrespena. Militantziaren aroa ez da iragana eta motibazio politikoa ere beharrezkoa da.

Euskararen aldeko motibazioak

Euskararen aldeko motibazioak neurtzeko iritzi andana bat eskaini zaizkie herritar guztiei, euskaldun ala ez. Gaiak ziren euskararen irakaskuntza, erabilera, ospea, iraupena, nortasun kolektiboa, geroko gizartea besteak beste. Emaitzak agertzen ditugu orokorrean eta ohiko parametroen arabera, eskualdea, hizkuntza gaitasuna, adina eta jatorria.

Euskarari buruzko iritziak eta jarrerak

Hona adibide esanguratsuenak. Bost erantzun posible: (oso) ados, (oso) kontra, ala ezbaian.

- Bi hizkuntza izateak problemak sortzen ditu gizartean: ez ados %84.
- Frantsesa ongi menperatzen ez dutenei euskara irakastea ez da ongi; ez ados %76.
- Euskara bakarrik etxekoekin eta lagunekin erabiltzeko da: ez ados %75.
- Euskara frantsesa bezain aberatsa da: ados %56.
- Egiazki euskaldun izateko euskaraz mintzatu behar da: ados %50.

Lau iritzi bereizi dira zerrendatik, norberaren jarrerak neurtzeko euskararen irakaskuntza eta erabilerari buruz.

- Irrati–telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz: ados %55.
- Nahitaezkoa da haur guziek euskara ikas dezaten: ados %51.
- Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea: ados %53.
- Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan euskara baino: ez ados %31.

Lau erantzun hauek bateratuz, bakoitzarentzat definitu da euskararen erabiltzeari buruz duen gogoia, irakaskuntzan ala gizartean. Lau iritziak oinarritzat hartuz 5 jarrera definitu dira: oso edo aski aldekoak, ez alde ez aurka, aski edo oso aurkakoak. Zein dira emaitzak ohiko aldagaien arabera?

Euskara sustatzeko jarrerak hizkuntza gaitasuna, jatorria eta adinaren arabera (%)

Jarrerak	Ipar E-H.	Euskaldun	Erdaldun	Bertako	Etor-kin	65 urte eta +	16-24 urte
Aldekoak	39	73	25	55	25	41	36
Ez alde ez aurka	40	22	47	32	47	39	41
Aurkakoak	21	5	28	13	28	20	23

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren eta EEP, 2011.

Iparraldean orokorki aldekoak eta axolagabeak berdintsu dira %40 eta aurkakoak askoz gutiago %21. Ikusiz aurkakoak kopuru ahula ageri da iritzi publi-

koaren gehiengo bat prest dela euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta onartzeko. Halere axolagabeen kopuru handiak erakusten du herri hizkuntza-ren aldeko pedagogia zabal baten beharra oren oniritzia sustatzeko.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, euskaradunetan, aldeko jarrerak (%73) askoz aurkako jarrerak (%8) baino gorago dira eta axolagabe guti. Elebidun hartzaileetan aldekoak %63 dira eta aurkakoak %10. Erdaldunetan %25 dira euskararen aitzinamenduaren alde, %28 aurka eta axolarik ez dutenak gehiengoan %48. Hizkuntza gaitasuna eta euskararen aldeko gogoia elkarri lotuak dira. Froga hor dago euskarazko irakaskuntzaaren motibazioa sustatu behar dela, hizkuntza politikak ondorio eraginkorrak luzaz eman ditzan.

Jatorriari begira, Euskal Herrian sortu direnetan aldeko jarrerak %42 dira eta aurkakoak %20. Euskal Herri kanpotik etorri direnetan aldiz aurkako jarrerak %29, aldekoak %21 eta gehienak axolagabe %47. Beraz ulergarri da etorkin anitz den eskualdeetan dela euskara aitzinarazteko gogo ahulena: Baionaldean %30, Lapurdi barnean %43, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %54. Beste lurraldeetan zer? Euskal Autonomia Erkidegoan, aldekoak %62 dira, Gipuzkoan %75. Nafarroan, aldekoak %28, kontrakoak %35.

Adinaren arabera, adin tarte zaharrenean dira euskararen aldekoak go-renean (%41) eta adin tarte gazteenean apalenean (%36). Ohargarri da axolagabeen neurri indartsua adin-talde guzietan, %39 batez beste, indar-tsuago 35 urtez petikakoetan. 16-24 urtekoetan aldekotasuna apalenean da (%36), axolagabeak gutitu dira (%41) baina aurkakoen neurria gorenean da (%23)! Ikasleen motibazioa kontuan hartu behar da pedagogiaren alo-rean, euskara ez dadin soilik eskolako hizkuntza izan.

Zer egin gazteen motibatzeke? Euskarak ez du izan behar bakarrik eskola-ko hizkuntza. Eskolatik kanpo ere erabiltzekoa da, lagunartean, adiskideekin, ikaskideekin adibidez aisialdian, kirolean eta beste.

Hain zuzen, Politika proiektuko 5. erronka aisialdia da euskara eta goza-mena uztartzeko xedearekin. Estrategiak bi norabide hartzen ditu. Alde batetik euskarazko aisialdi erakargarriaren eskaintza eta bestalde profesio-nalen formazioa eta tresnatzea euskaraz lan egin dezaten. Bi helburu hauek elkar osatzen dute, ezin baita kalitatezko aisialdirik eskaini profesionalak

formatu gabe. Orain arteko ekintza, euskarazko aisialdiaren alorrean denbora osoz edo zati batean diharduten eragileen sostengua da.

Geroari begira eta 2011-2016 bide orriaren arabera, aisialdiaren eremuan lehen lan-ildoak izanen da aisialdiko harrera-gune kolektiboetan eta egonaldietan euskarazko eskaintza egituratzea, kontuan hartuz alor honetan ari diren eragileek xede bera dutela. Beste lan-ildoak da euskarari toki bat ematea kultura eta arte formakuntzan, bai eta kirol heziketan ere, arduradun ofizialen partaidetzarekin.

Euskal nortasuna

Euskaltasunaren kontzeptu hau erran-nahi askotakoa dela. Batzuentzat nozio soziopolitikoak da (herritasuna), besteentzat nozio linguistikoa (euskalduntasuna). Hiru galde baziren euskal gogoak eta euskaltasunari buruz:

- *Euskalduntzat daukazu zure burua, anitz, nahikoa, doi bat, guti, deus ez?*
- *Nolako interesa duzu euskararentzat, anitz, nahikoa, doi bat, guti, deus ez?*
- *Nola sentitzen duzu zure burua, euskaldun, frantses, biak berdin, euskaldunago, frantsesago?*

Lehen galderaren eta bigarrenaren emaitzak elkarrekin aztertuko ditugu, bien emaitzak oso antzekoak baitira. Hirugarrena, Morenoren galdera famatua, gero aipatuko dugu nortasun bikoitza eta elebitasuna landuko ditugularik, nahi dugun gizartea«-ren lerroaldian.

Euskal nortasuna (euskarari buruzko interesa) hizkuntza gaitasuna, jatorria eta adinaren arabera (%)

Jarrerak	Ipar E-H.	Euskalduna	Erdalduna	Bertakoa	Etor-kina	65 urte eta +	16-24 urte
Anitz, nahikoa	53 (61)	93 (89)	38 (40)	80 (73)	29 (39)	57 (70)	51 (48)
Doi bat	24 (24)	6 (9)	47 (30)	16 (18)	30 (30)	21 (25)	29 (32)
Guti, deus ez	21 (14)	1 (1)	28 (20)	4 (8)	29 (20)	20 (11)	20 (20)

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak eta EEP, 2011.

Zutabe bakoitzean lehen zenbakia «*euskalduntzat daukazu zure burua*» galderaren emaitzak dira, bigarren zenbakia parentesi artekoa, «*nolako interesa duzu euskararentzat galderarenak*». Batak euskal nortasuna aipatzen du eta identifikazio bat eskatzen. Besteak euskara aipatzen du eta inkestatuaren atxikimendua neurtzen.

Ipar Euskal Herrian orokorki jendeen erdiek (%53) beren burua euskalduntzat daukate eta %61 euskaraz interesatzen dira. Beraz euskara guti edo aski dakitenak baino askoz gehiago: euskaldunak gehi elebidun hartzaileak %30,5 dira. Aldiz euskaltasun epela eta euskarari buruzko interes ahula dutenen heina erdaldunena baino askoz ttipiagoa da: erdaldunak %69,5 dira, beren burua euskalduntzat ez daukatenak %21, euskaraz interesatzen ez direnak are gutiago %14. Dedukzioz erran dezakegu erdaldunen zati bat «euskaldun» sendi dela eta gehiengo bat euskarari interesatzen zaiola. Itxuraz herritartasuna adierazten dute. Herria dute bihotzean eta herriaren ezaugarri nagusi bat. Erdaldunen motibazio hau ez da nahikoa halere euskalduntzeko bidean abiatzeko.

Halere 3. eta 4. zutabeek erakusten dute euskal sentimena eta euskarari buruzko interesa hizkuntza gaitasunari lotuak direla. Ikus euskaldunen eta erdaldunen arteko ezberdintasunak. Euskaldunak bitan gehiago dira euskaldun sentitzeko eta euskarari interesatzeko (zergatik ez denak?). Sorterriaren arabera antzeko ezberdintasunak agertzen dira 5. eta 6. zutabeetan. Bitxikeria bat erdaldunek eta etorkinek interes gehiago ematen diote hizkuntzari ezen ez eta herri nortasunari. Integrazio eskasaren seinale, ote?

Adinaren araberako emaitzetan, adin tarte zaharrena eta gazteena konparatzen ditugu 7. eta 8. zutabeetan. Gogoan atxik 65 urte eta gehiagokoak nolazbait elebidun direla, ekoizle edo hartzaile %38, erdaldun %60; 16-24 urtekoetan %29 nolazbait elebidun dira, erdaldun %71. Hemen ere eta bi adin tarteetan nabari da elebidunak baino askoz gehiago direla beren burua euskalduntzat daukatenak eta euskaraz interesatzen direnak, aldiz erdaldunak baino askoz gutiago euskaltasuna eta euskarari buruz hotz direnak. Horiek hola motibazioak aldakor dira adin tarte batetik bestera. Ez da ezberdintasun handirik euskal nortasunari begira. Baina zaha-

rrenetan %70 dira interes handia dutenak euskararentzat, gazteenetan %48 soilik, %22ren aldearekin, adin tarte guzietako ahulena. Alderantziz axolagabeak %14 dira adinekoetan eta %20 gazteenetan. 14-25 urtekoen euskal motibazio epela berriz ere ageri da eta funtsezko problema pedagogikoa da.

Ezberdintasun handiak badira kostaldetik barnealdera. Baionaldean %41ek euskalduntasun kartsua adierazten dute eta %51k interes handia euskararentzat; Lapurdi barnean %59k eta %65ek hurrenez hurren; Nafarroa Beherean eta Zuberoan %74k eta %76k. Hiru eskualdeetan euskarari buruzko interesa indartsuago da nortasun kontzientziari konparatuz. Hala ere nabari da hizkuntza gaitasunak eragin handia duela euskaltasunaren kontzientziari begira.

Zer nolako gizartea nahi dugun

Zalantzarik gabe nahi dugun Euskal Herria nortasun bikoitzekoa da eta elebiduna.

Ipar Euskal Herriko galdetegian Morenoren galdera erabili da, iragan inkestetan bezala. Hegoaldean aldi honetan ez: arriskutsuegia zelakoan ote? Luis Moreno soziologoak Edimburgoko unibertsitatean sei puntuko galde-
tegia erabili zuen lehian diren nortasun kolektiboak aztertzeko, Galesen, Katalunian. Hona Ipar Euskal Herriari buruzko galdetegia emaitzekin:
«Nola sentitzen zara?»

Euskaldun bakarrik	%11
Euskaldun frantses baino gehiago	%11
Euskaldun bezain frantses	%29
Frantses euskaldun baino gehiago	%27
Frantses bakarrik	%28
Erantzunik ez	% 4

Euskaldun edota frantses galdegiten delarik, nortasun bikoitza da nagusi euskaldun eta frantsez %67: bi nortasunak berdin %29, bi nortasun baina

euskaldunago %11, bi nortasun baina frantsesago %27. Nortasun bakarrekoak guti dira: %11 euskaldun bakarrik, %18 frantsez bakarrik.

Metologia hau egokiena da zeren eta bi nortasunak auzian baitira, herrian eta norberarengan bezala. Euskaltasunari buruzko inkestan %53k beren burua euskalduntzat daukate. Emaidza optimistegia da, nortasun bakar bat baitzen auzian. Zuzenez antzeko ikerketa egin behar zitekeen frantsestasunari buruz, eta ni beldur emaitza berdintsuak agertuko zirela.

Elebitasunaz iritzi ezkorra proposatu zelarik «Bi hizkuntza izateak problemak sortzen ditu gizartean» %84k desadostasuna adierazi zuten. Hizkuntzei buruz galde zehatzagoa egin da: «Zure ustez, geroan, zein hizkuntzetan mintzatu behar litzateke Iparraldean?» Hiru erantzun aukeran: euskaraz, frantsesez edo bietan.

Zein hizkuntzatan mintzatu behar litzateke etorkizunean? %

	Ipar E-H.	Euskalduna	Erdalduna	Bertakoa	Kanpoko	65 urte eta +	16-24 urte
Euskara hutsean	3	9	v1	4	1	2	6
Euskaraz eta frantsesez	94	88	95	93	95	92	91
Frantses hutsean	2	1	3	2	2	4	3

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Mezua argia da. Ia aho batez herritarrek pentsatzen dute Ipar Euskal Herrian, euskara eta frantsesa direla geroko hizkuntzak. Edozein aldagai hartuz iritzi nagusia da elebitasunarena: oro har %94 eta berdintsu hiru eskualdeetan, adin-talde guzietan, euskaldun ala erdaldun, bertako ala kanpoko.

Ba ote da nor edo nor hizkuntza bakarra nahi duenik Iparraldearentzat? Bakar batzuk. Euskara bakarrik mintzatu beharko litekeela pentsatzen dutenak dira %9 euskaldunetan, %6 gazteenetan, %4 hemen berean sortuak

direnetan. Eta askoz gutiago frantses hizkuntza bakarraren alde direnak: %4 zaharretan, %3 erdaldunetan, %2 kanpokoetan, bertakoetan eta Iparralde osoa hartuz.

Bestalde ohargarri da Iparraldeko eleaniztasuna: %35ek gaztelania dakite, %25ek ingelesa eta %10ek beste kanpoko hizkuntza bat.

Laburbilduz erran genezake ororen gogoan elebitasuna dela etorkizuneari Ipar Euskal Herriko hizkuntza egoera. Euskaldun guztiak elebidunak dira. Frantsesdun elebakarrek lukete urrats batzuk egin behar euskarari buruz. Hori gertatuko da euskalduntasuna erakargarria agertuko zaien neurrian.

Zer nolako hezkuntza nahi dugun

Galdera zen: «*Haurrik bezenu eskolan, zein hizkuntzatan nahi zenuke ikas dezaten?*» Erantzunak lau aukera ematen zituen, oraingo egora kontuan hartuz: murgilbidea, elebitasuna, irakasle ibilkariak edo eskola elebakarra. Emaitzak aurkezten ditugu aldagai ezberdinekin.

Ikaskuntza hizkuntza zure haurrentzat

	Ipar E-H.	Euskalduna	Erdalduna	Bertakoa	Kanpoko	65 urte eta +	16-24 urte
Euskaraz, frantsesa ikasgai	19	47	8	28	10	19	19
Euskaraz eta frantsesez	34	37	31	39	29	36	24
Frantsesez, euskara ikasgai	24	8	29	17	30	17	35
Frantsesez bakarrik	20	4	27	13	26	23	19

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak eta EEP, 2011.

Oro har eskola elebidunak dauka lehentasuna (%34) bereziki erdaldunentzat, bertakoentzat, puntu baten eskasez kanpokoentzat eta adin talde guzietan salbu 16-24 urtekoetan. Baina hautua zabala da. Euskaldunek euskarazko eskola nahiago lukete (%47), bigarren hautua eskola elebiduna delarik (%37).

Aldiz frantses hutsezko eskola azken hautua da euskaldunentzat eta bertakoentzat, hirugarren hautua erdaldunentzat, kanpokoentzat eta orotara. 16-24 urtekoentzat eta orotara frantses hutsezko eta euskarazko eskolak hein berdintsuan daude %20 inguru. Inkesta honek erakusten du, ikaskuntza elebidunaren arrakasta handia eta frantsez hutsezko eskolaren muga, iritzi publikoan bederen.

Etorkizunari begira, beldurrak eta itxaropenak

Bosgarren inkestak erakusten ditu hizkuntza prospektibaren argi-ilunak bereziki hizkuntza politikari buruz, euskararen kontrako arriskuak baloratzean eta euskararen 85 urteko historia irakurritz. Geroa asmatzeko atzeranzko ikuspegia beharrezkoa da.

Hizkuntza politika

Inkestatuei, euskaldun ala erdaldun, galdegin zaie nola estimatzen zuten azken urte hauetan euskarari buruz antolatatu diren hizkuntza politikak. Galde honek lau balorazio eskatzen ditu:

- *Orokorki nola baloratzen duzu abian ezarri diren euskararen aldeko hizkuntza politika publikoak? Egokiak edo desegokiak? Berdin zait.*
- *Zergatik egokiak? Asko egin delakotz. Aski egin delakotz.*
- *Zergatik desegokiak? Gutxi egin delakotz. Gehiegi egin delakotz.*

Hona emaitza nagusiak.

Hizkuntza politiken balorazioa eta arabera ikusmoldeak

	Ipar E-H. 238.600	BAB 99.000	Lapurdi bestalde 107.000	Nafarroa B. Zuberoa 32.600
Hizkuntza politika egokia zait:	%25	%22	%28	%26
asko egin delakotz,	%15	%13	%18	%17
aski egiten delakotz.	%10	%9	%10	%9
desegokia zait:	%30	%28	%32	%30
guti egin delakotz,	%26	%23	%29	%29
gehiegi egin delakotz.	%4	%5	%3	%1
Axolarik ez:	%45	%50	%40	%44
berdin zait,	%16	%21	%13	%14
erantzunik ez.	%29	%29	%27	%30

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak eta EEP, 2011.

Herritarrek zer diote euskararen aldeko hizkuntza politikaz? Ohargarri da jendeen %45ek ez dutela baloraziorik egiten, edo berdina zaie (%16), edo ez diote galderari erantzuten (%29). Nola ulert dezakegu axola eskas hau? Ala politika ezin aipatzeko tabua da, hizkuntzen alorrean ere?

Euskaraz axola dutenek nola baloratzen dute hizkuntza politika? Orokorki:

- % 25ek egokia dela estimatzen dute;
- % 30ek desegokia dela pentsatzen dute.

Baionaldekoek dute hizkuntza politikaz estimu ahulena adierazten: %22. Lapurdi barnealdean dute hizkuntza politikaren estimu handiena, %28. Iparalde barnealdean, %26.

Halere kritika nagusi da: 60.000 kontent, 70.000 kexu, 100.000 axolagabe. Erran behar da orain arteko hizkuntza politika diru laguntzan mugatzen zela, maizenik laguntza xuhurra. Orain botere publikoak bere gain hartzen du euskararen sustatzeko egitasmoa. Euskararen Erakunde publikoak itxaropen berri bat sortu du, baina ondorio onak berehala goaitatzen ditugu. Dena dela «denborari denbora» eman behar zaio.

Euskararen aldeko hizkuntza politikaz zerbait erran dutenetan, balorazio zabalena ezkorra da: ez dela egokia guti egin delakotz %26. Gehiegi egin dela pentsatzen dutenak bakan dira, %4 orokorki.

Euskararen aldeko hizkuntza politika hobeki estimatzen dutenak Iparralde barnealdekoak dira: egokia dela asko egin delakotz %29. Aski egin dela pentsatzen dutenak oso guti dira: %1.

Hizkuntza politika aipatzen dugularik zertaz mintzo gara Ipar Euskal Herrian? Hiru etapa nagusi bereiz ditzakegu: euskalgintza lagundua, euskalgintza hitzartua, hizkuntza politika.

- 1990a aitzin, euskalgintza guzia elkarleen esku zen. Aspaldiko Euskaltzaleen Biltzarra, gero 1950eko hamarkadan, Deixonne legearen ildotik Ikas, ikastolak, gau eskolak, kultura elkarteak; 1980eko hamarkadan euskal irriatiak, eskola elebidunak, guraso elkarteak. Botere publikoak baimen eta diru laguntza batzuk ematen zituen herritarren aldarrikape-nei erantzunez eta Europako parlamentuaren eraginez (Arfé, Kuijpers eta Pasquale ebazpenak).
- 1990ean hasi zen, euskalgintza hitzartuaren aroa« (Baxok 2001) gizarte politikoa eta gizarte zibilaren artean. Bi erakunde sortu ziren euskara eta euskal kultura sustengatzeko. Alde batetik Euskal Kultur Erakundea (EKE), Pizkundean federatuak ziren elkarteak eta botere publikoaren ordezkariak elkarretaratu zituenak urteroko programak eta buxeta hitzartzeko. Bestalde Herrien arteko Sindikata, Iparraldeko udalerrri gehienak bildu zituen.

1995ean beste bi erakunde egituratu ziren Euskal Herri 2010 prospektibaren ildotik: Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua. Hizkuntz Antolaketaren atala onartu zuten lau ardatz finkatuz: euskarazko eta euskararen irakaskuntza, toponimia elebiduna, euskal komunikabideak eta euskararen erabilera zerbitzu publikoetan. Jarraian 2001ean Estatuak eskaini zigun «Hitzarmen berezia Euskal Herri 2001-2006». Lehen aldikotz aipatzen zen, hizkuntza politika« euskalgintzako eremu asko programatuz: Euskaltzaindia, pedagogia, euskal irriatiak, ikerketa, besteak beste.

- Egiazko hizkuntza politika 2004an abiatu zen Euskararen erakunde publikoa (EEP) sortu zelarik tokiko hautetsien eraginez. Berrikuntza handia izan da botere publikoak bere gain hartzen duela hizkuntza politika, adibidez Hezkuntza ministerioak Kontseilu nagusiarekin sinatu duen hitzarmena euskal ikaskuntza garatzeko. 2006an Hizkuntza politika proiektua onartua izan zen, euskaldun osoak« sortzeko, belaunaldi gazteei emanez lehentasuna. 12 erronka nagusi definitu ziren lau eremutan banatuak: euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen indarra, kalitatea eta motibazioa bizkortuz.

Horiek hola, elkarreak dira euskalgintzaren motorrak baina ez dira erabakitzaile, aholkulari baizik Aholku Batzordean. 2010ean agertu zen hizkuntza politika, bide kurutze batera» (Coyos 2012) heldua zela. Arrakasta ezin ukatua da baina erakunde publikoak elkarteen ekintzak jarraitzen ditu hiru berrikuntza ekarriz: talde profesionala, hizkuntza teknikarien sarea herri elkargoen partaidetzarekin eta haurtzaindegi labelizatuen sarea. Euskarazko hezkuntza asko zabaldu da baina neurketarik ez da egin ikasleen hizkuntza gaitasunari buruz. Ez dakigu zenbat ikasle euskarazko hitzun bilakatzen diren. Hautetsiek ideia ederrak badituzte euskararen normalizazioaz baina aldaketak murrizak dira. Ondorioz ministerio arteko entzunaldi baten ondotik, Erakunde Publikoak autokritika egin du eta bide orri berria definitu da 2011-2010 eperako: ikaskuntzen ebaluazioa Europako estandarra erabiliz, sentikortasun kanpainak, murgilbidearen zabaltzea eskola guzietan, etxe haurtzainen euskalduntzea, erakundeetako elebitasuna...

Bi muga itxuraz ezin gaintituak hor daude: diru laguntzaren ahulezia, krisia denbora honetan eta euskararen onarpen ofiziala. Konstituzioaren, legediaren eta Europako itunaren aldetik ez da aterabiderik ikusten. Itxaropen izpi bat, deszentralizazioaren III. Aktan??, Ipar Euskal Herriko hautetsien gehiengo lurralde elkargoaren alde agertu da, herri hizkuntza eta kulturaren eskumena barne. Militantziaren aroa ez da bururatu.

Euskarari buruzko itxaropena

Zertan da herritarren baikortasuna euskarari buruz? Euskara galtzeko arriskuan delako iritzia inkestatuei proposatu zaie. Hona ondorioak.

Euskara galtzeko arriskuan ote? (%)

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	65 urte +	16-25
Euskara arriskuan	41	46	38	25	66
Ezbaian	6	5	7	5	7
Arriskuz kanpo	49	46	51	64	25

Iturria: V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Oro har euskararen aldeko itxaropena da nagusi, salbu hiztun gazteen artean. Euskararen galtzeko beldurra handituz doa adin talde zaharrenetik gazteeneraino: %25, %39, %42, %55, %66. Eta araberan itxaropenaren neurria ttipituz doa: %64, %52, %48, %37, %25. Gazteak zaharrak baino beldurriago eta erdaldunak euskaldunak baino baikorrago euskarari begira, ezin da ulertu.

Euskaldunak zalantzan daude, baikor bezainbat ezkor euskararen ge-roaz. Oro har badakigu euskararen gainbehera ez dela berehala geldituko. Alabaina zaharrenak dira euskaldunenak eta urte bakoitz euskaldun zahar gehiago desagertzen da, gazteak euskalduntzen diren baino lasterrago. Gainera, biztanleria beti emendatuz doa, etorkinei esker neurri batean. Noiz arte iraunen du gainbehera honek? Euskararen prospektiba egin daiteke kontuan hartuz demografiaren hazkundera eta euskal irakaskuntzaren garapena.


Euskararen historia 85 urtez

Bost inkestetako 25 adin-taldeak zerrendatuz erdiguneko sorturteen ordena kronologikoan, euskararen bilakaera goragotik ikusten da. Lehen in-

kestako lekuko zaharrena 1910ean sortua zen eta bosgarren inkestako lekuko gazteena (16 urte) 1995ean. 20 urte hauetako inkestekin euskararen 85 urteko historia irakur dezakegu. Jakinez adin tarteak 10 edo 15 urtekoak direla, adin-talde bakoitzak bere bi auzoak estal ditzake neurri batean, teilak teيلاتuan bezala.

Ikus taula osoa eranskinetan. Hemen taula osoaren grafikoa agertzen da.

Hizkuntza gaitasuna sorturtea eta eskualdearen arabera (%)



Adin-taldeen jarraipena

Ikus Iparraldeko kurba orokorra. 25 adin-taldeak kontuan hartuz ageri da ehunekotan euskaldun kopurua jautsi dela 1919 eta 1976 artean %39tik %11 arte, 60 urtez %30 galduz (urtero puntu erdi bat). 1977an kurba ordokitu da eta gorantz abiatu, %11etik %18ra, 14 urtez %7 irabaziz (urtero puntu erdi bat). Hots gaur egun 1991eko adin tarte 1964koaren heinean da eta goranzko bidean.

Zergatik honelako emaitza onak adin-talde gazteenean? Euskal irakaskuntzaren eragina nabari da: Lapurdi barnealdean daude ikastola eta gela elebidun gehienak eta euskarak 9 puntu irabazi ditu 20 urtez. Aldiz, eskualde euskaldunenean euskarazko irakaskuntza berant antolatu zen, haurrek

euskara etxean ikasten zutelakoan: ondorioz euskara 38 puntuz jautsi da 40 urtez. Geroari buruz Hizkuntza politikaren lehentasuna, haur eta gazteak dira. Lehentasun honen koherentzian abiatu dira lehen lan ardatzak: euskaraz eskolatzea, haurtzaindegietan euskarazko harrera egituratzea eta familiak sentsibilizatzea euskara transmititzen. Asmatzekoa da ondorioak las-ter agertuko direla inkesta datuetan.


Belaunaldien jarraipena

Hizkuntza gaitasunaren teilatuan, adin tartek 25 urteko belaunaldika banatzen ditugu eta jarraian hiru mailetako ikasleak zenbatzen. *Ikus hurrengo taula eta grafikoa.*

Ipar Euskal Herrian 1924an sortuak direnak euskaldun dira %37. Guraso bilakatu direlarik 1949an, beren, baby boom« famatuari euskara transmititu diete %27k. Belaunaldi honen haurrak euskaldun dira %11, 1976 inguruan, eta hemen dago Iparraldeko euskaldun kopuruaren zilo beltza. Belaunaldi erdaldundu honen haurrak eskolan daude: bigarren mailan %11k euskara ikasten dute murgilbidean edo ikasgela elebidunetan, %36k eskola mailan eta %44k ama-eskoletan. Jadanik 16-24 urtekoak euskaldun dira %18.

Euskaldunak belaunaldika eta euskazko ikasleak (%)

Sorturtea +/-	Adin tarte 1924	Adin tarte 1949	Adin tarte 1976	Adin tarte 1991	2. maila 1998	1. maila 2004	Amaeskola 2009
Iparralde	37	27	11	18	11	36	44
BAB	11	13	3	8	4	15	20
Lapurdi	45	30	15	24	20	49	59
N B. Zuberoa	80	60	33	32	16	51	61



Baiona-Angelu-Biarritzen hizkuntza gaitasunaren kurba %11 eta %8ren artean aldatzen da, etorkinen arabera, baina doi bat goratuz doa 1991eko adin-taldearekin. Eskolako transmisioa ahulegi da baina hobetzeko bidean: bigarren mailan %4, eskoletan %15, haur eskoletan %20.

Lapurdi barnealdean, 1924an euskaldunak jendetzaren %45 ziren. Gerla aitzin eta ondotik euskaldunen bi gainbehera gertatu dira, %15aldi bakoitz, %15era jautsiz. Orain euskaldun gazteak 16-24 urteko adin tartearen %24 dira, beraz %10ren irabazia. Gaur egun bigarren mailan %20ek euskaraz ikasten dute, eskoletan %49k eta haur eskoletan %59k.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, 1924an euskaldunak jendetzaren %80 ziren. Bi gainbehera izigarri gertatu dira hiztunetan: %20 gerla aitzin eta %27 gerlaren ondotik. Geldialdia dago euskaldun gazteen aldetik, halere adin tarte gazteko %32a Iparraldeko gorena da. Eskolako euskal irakaskuntza itxaropen-tsua da %12 ikasle bigarren mailan, %51 eskoletan eta %61 haur eskoletan.

Bilduma

Nabari da Ipar Euskal Herrian euskara ez dela normaltasun osora heldua eta beraz galtzeko arriskua ez dela baztertua. Halere argi berde batzuk pitzen ari dira. Bost adibide.

- Euskaldunen kopurua oraindik gainbehera doa baina adintarte gazteen euskalduntasuna goratzen ari da azken 15 urte hauetan.

- Euskara lehen hizkuntza bezala gainbehera doa baina familia bidezko jarraipena hobetuz doa guraso gazteen kartsutasunari esker, biak euskaldunak direlarik, bai eta euskaldun-erdaldun bikoteetan ere, haurtzaindegi elebidunen laguntzarekin.
- Euskararen eskola bidezko transmisioa inkestetan agertzen hasia da 16-24 urtekoetan; eskola, familia, aisialdia eta hizkuntza politika uztartuz euskara aitzina daiteke urrats bizian.
- Euskara erabiltzen da gehienbat familian eta lagunartean. Oso guti zerbitzu publikoetan, gero eta gehiago herriko etxeetan. Euskaldunen mintzamoldea lehenagoko inkestekin konparatuz doi bat hobetuz doa. Baina erdaldunak kontuan hartuz euskaldunen boza ahul entzuten da gizartean, salbu elkarretaraten direlarik.
- Hizkuntza motibazioetan euskarari buruzko atxikimendua herri nortasunaren kontzientziari lotua da, bai eta hizkuntza afektiboari ere, gaitasun ikasiari baino gehiago. Hizkuntza politika eta euskararen egoerari begira, euskaldun kopurua ezbaian dago, beldurra eta itxaropenaren bidartean, pesimismo aktibo batean.

Noiz arte iraunen du gainbehera honek? Euskararen prospektiba egin daiteke kontuan hartuz demografiaren hazkundera eta euskal irakaskuntzaren garapena. Oraingo euskal ikasle guziak euskaldun bilakatzen badira belaunaldi bat barne Ipar Euskal Herria 1919ko heinera hel liteke/helduko litzateke. Horretarako eskola transmisiotik familia bidezko transmisiora pasatu behar da eta euskarak eskolatik gizarte zabalera jalgi behar du.

Beraz ametsik ez egin, baina depresiorik ere ez. Euskararen pizkundera egingarria da eta egiteko bidean. Orain egiazko hizkuntza politika badago Ipar Euskal Herrian, bereziki haur eta gazteei buruz norabideratua, euskaldun osoak emendatzeko, irakaskuntza, euskararen erabilera eta euskararen aldeko motibazioa pizteko. Ikusiz Euskararen Erakunde Publikoaren bitartez, nola botere publikoa eta euskalgintza uztartzen diren, asmatzekoa da dinamika indartsu eta iraunkorrean sartuak garela.

Bibliografia

AIZPURUA, JON eta ORTIZ DE LANDALUZE, AGURTZANE, 2012, «V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011», *Bat soziolinguistika aldizkaria* 84, 59-89.

ARRUE PROIEKTUA, 2011, *Ebaluazio diagnostikoa: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. Eusko Jaurlaritza: ISEI-IVEI, Soziolinguistika Klusterra.

BAXOK, ERRAMUN, 2007, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*. Baiona: Euskararen Erakunde Publikoa.

BAXOK, ERRAMUN eta COYOS JEAN-BAPTISTE, 2011, *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.

COYOS, BATTITU, 2012, 2012, «Langue basque, une politique à la croisée des chemins», *Enbata*, 2012/06/20.

ETAT – RÉGION AQUITAINE – DÉPARTEMENT DES PYRÉNÉES-ATLANTIQUES – CONSEIL DES ÉLUS DU PAYS BASQUE, 2000, *Convention spécifique Pays Basque 2001-2006 [Euskal Herriko hitzarmen berezia 2001-2006]*.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2006, *Hizkuntza politika proiektua, hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun*. Baiona: EEP.

———, 2009, *Euskararen Erakunde Publikoak daraman ekintzaren behin behineko azterketa 2005-2009*. Baiona: EEP.

———, 2009, *Hizkuntza politikaren jokabide esparrua 2011-2016 urteetarako*. Baiona: EEP.

EUSKO JAURLARITZA, 2011, *V. Inkesta soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

LURRALDEA, 2006, *Chantier jeunes / Pays Basque 2020, Photographie de la jeunesse du Pays Basque, (Euskal Herriko gazteriaren argazkia)*, Conseil de développement, Conseil des Élus du Pays Basque.

———, 2006, *Pays Basque 2020 Etat des lieux sur la culture (Euskal Herri 2020, Kulturaren egoera-azterketa)*, Conseil de développement, Conseil des Élus du Pays Basque..

MARTINEZ DE LUNA, IÑAKI, 2004, «Hizkuntza biziaren euskarriak», *Bat soziolinguistika aldizkaria* 53, 55.

MINISTÈRE DE LA CULTURE ET DE LA COMMUNICATION, DE L'ÉDUCATION NATIONALE, DE L'INTÉRIEUR, 2010, *Rapport d'évaluation de l'Office public de la langue basque*, EEP.

Webguneak: www.eke.org, www.mintzaira.fr (EEP), www.lurraldea.net (antolaketa).

Eranskina

Hizkuntza gaitasunaren teilatua, sorturtearen eta eskualdearen arabera (%)

Bost inkesta soziolinguistikoak

Zenbakiak inkestak adierazten dituzte eta hizkiek adin-taldeak.

- 5 inkestak: (1-) 1991, (2-) 1996, (3-) 2001, (4-) 2006, (5-) 2011.
- 5 adin-taldeak: (-A) >65 urte, (-B) 50-64, (C) 35-49, (-D) 25-34, (-E) 16-24 urte.
- 5 inkestetako 25 adin-taldeak zerrendatuak dira erdiguneko sorturteen ordena kronologikoan.

Hizkuntza gaitasunaren teilatua, sorturtearen eta eskualdearen arabera (%).

Inkesta Sorturtea +/-	(1-A) 1919	(2-A) 1924	(3-A) 1929	(1-B) 1934	(4-A) 1935	(2-B) 1939	(5-A) 1940	(3-B) 1944	(1-C) 1949	(4-B) 1950
Iparralde	39	37	36	39	32	32	31	30	32	27
BAB	—	11	11	—	12	11	12	12	—	13
Lapurdi	—	50	45	—	39	36	36	34	—	30
N-B Zuberoa	—	82	80	—	75	78	70	71	—	60

Inkesta Sorturtea +/-	(2-C) 1954	(5-B) 1955	(3-C) 1959	(1-D) 1962	(4-C) 1964	(2-D) 1967	(5-C) 1969	(1-E) 1971	(3-D) 1972	(2-E) 1976
Iparralde	27	24	23	25	18	14	15	20	12	11
BAB	14	11	11	—	07	03	05	—	02	01
Lapurdi	30	26	24	—	18	14	15	—	14	14
N-B Zuberoa	58	57	55	—	50	49	45	—	41	34

Inkesta Sorturtea +/-	(4-D) 1977	(3-E) 1981	(5-D) 1982	(4-E) 1986	(5-E) 1991
Iparralde	12	12	14	16	18
BAB	03	03	05	07	08
Lapurdi	15	15	18	21	24
N-B Zuberoa	34	33	32	30	32

1991ko inkestan eskualdeak hiru herrialde historikoak ziren. Zatiketa demografikoa bigarren inkestarekin hasi zen.

V. inkesta soziolinguistikoaren azterketa kualitatiboa

CASTET, Sebastian
Euskal Konfederazioa

Xifre guziak zehatz-mehatz aztertu gabe, *Euskal Konfederazioaren* izenean arlo desberdinetako xifre gako batzuk aipatuko ditut, euskararen berreskuratze osoaren ikuspegitik interesgarrienak direnak.

Xifre horien bidez ikusiko dugu Ipar Euskal Herrian berreskuratze oso honetatik urrun garela eta euskararen egoera larria dela, nahiz eta arlo desberdin horietan keinu itxaropentsuak agertzen diren.

Bestalde, *V. Inkesta Soziolinguistikoak* agertu zenbaki gako horiek azterteaz gain, interesgarria da ikustea *Unescoko* adituek desagertzeko arriskuan diren hizkuntzen atlasa egiteko bederatzi irizpide kontuan hartzen dituztela eta horietariko sei irizpide buruzko informazioak ematen dizkigula inkesta soziolinguistikoak. Sei irizpide horiek ondokoak dira:

- Hiztunen kopurua (balio absolutuan)
- Biztanleria osoaren hiztunen ehunekoa
- Hizkuntzaren transmisioa belaunaldi batetik bestera
- Hizkuntz komunitatearen kideek hizkuntzarekiko duten jarrera
- Hizkuntzaren erabilera arlo publiko eta pribatuan

Inkestak ez digu daturik ematen beste lau irizpideei buruz (gobernuek eta instituzioek dituzten jarrerak eta garatzen dituzten hizkuntza politikak, dokumentazio mota eta honen kalitatea, esparru eta hedabide berrien aitzineko erreakzioa, ikas eta irakaskuntzarako materialen eskuragarritasuna).

Bainan oraino interesgarriago da ikustea Unescok dioela bederatzi irizpide horiek elkarrekin uztartu behar direla hizkuntza baten bizitasuna neurtu ahal izateko eta bizitasuna ezin dela irizpide bakar batekin ebaluatu. Horrek sendotzen du *Euskal Konfederazioaren* diskurtsoa erraten duelarik hizkuntza politika batek hizkuntzaren ezagutza eta erabilera (eta bistan dena hizkuntza ezagutzeko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioa) elkarrekin uztartu eta neurri berean jorratu behar dituela.

Hizkuntza bat desagertzeko arriskutik kanpo dela errateko Unescok arloz arlo xifre zehatzik ez badu ematen ere, inkesta soziolinguistikoak arlo anitzetan agertzen dituen zenbaki apalak begiratzuz gero, ez da hizkuntzalaria izan behar Unescok ateratzen duen ondoriora heltzeko, hots, euskara ez dela desagertzeko arriskutik salbu eta egoera Iparraldean dela bereziki kezkaigarria.

Orain galdera ondokoa da: nola egin xifre horiek hobetzeko? Ez dugu ahortzi behar hizkuntza baten bizitasuna/osasuna ezaugarritzen dituzten ezagutza, transmisioa eta erabilera faktoreen xifre «onak» edo «txarrak» hein handi-handi batean hizkuntza horren alde edo kontra botere publikoetatik eramaten den hizkuntza politikari estuki lotuak direla.

Euskal Konfederazioarentzat argi da gaur egungo hizkuntza politikan jauzi kualitatiboa eman behar dela.

Erran bezala beraz, xifre guzi-guziak sakonki aztertu gabe, begira ditzagun ezagutza, erabilera eta transmisioari lotuak diren nagusienak, adierazgarrienak ere direnak, eta entsea gaitezen, konklusioan, xifre horien hobetzeko pista batzuk ematen.

Unescoren 1. eta 2. irizpideak: Hiztunen kopurua eta ehuneko biztanleria osoari begira

Arlo honetan elebidun osoen kopurua bakarrik hartuko dugu kontuan, euskararen berreskuratze osoaren ikuspegitik hauek baitira euskara egoki erabiltzeko eta transmititzeko gaitasuna duten pertsona bakarrak.

2011n, Iparraldean, %21,4 bakarrik euskalduna zen, xifre hori %22,5 zelarik 2006an eta %33,1 duela hogeitun urte 1991n.

Eta balio absolutua begiratzen badugu, 700 euskaldun oso galdu dira bost urtez bakarrik, 2006 eta 2011 artean eta 18.000 hogeitun urtez, 1991tik 2011ra.

Beherezko joera horrek urtez urte segitzen du, eta nahiz eta (eta hori puntu positiboa da) belaunaldi gazteenen artean elebidunen kopurua gorantz doan (ehunekoaan bederen), hiztun kopuru orokorra biziki apal gelditzen da. Gainera, euskaldunena den adineko jendea fiteago desagertzen da gazteak euskalduntzen diren baino.

Horrez gain, bada beste elementu bat kontu hartu behar dena: 16-24 adin taldean elebidunen kopurua emendatzen den arren, euskaraz gaitasun gehiago duen kopurua beheititzen da, horrek erabilera eta transmisioan dituen ondorio guzietan.

Unescoren 3. irizpidea: Hizkuntzaren transmisioa belaunaldi batetik bestera

Hirugarren irizpide horri dagokionez, interesgarria da ikustea bikote gazteenetan (2 eta 9 arte urteko haurrak dituzten bikoteetan) haurraren lehen hizkuntza euskara dela %94an bi gurasoak euskaldunak direlarik eta %65ean bi gurasoetarikoa bat bakarrik euskalduna delarik.

Unescoko adituek hizkuntzaren transmisioaren faktore hau garrantzitsutzat jotzen dute eta inkesta soziolinguistikoak bikote gazteenetan agerrarazi xifre horiek itxaropentsuak dira, eta are gehiago aitzineko datua kontuan hartzen badugu, hots, gazteen artean elebidunen kopurua goranzko bidea hartzen ari dela.

Hala ere, ez ditzagun bi datu orokor garrantzitsu begi bistatik gal:

- Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa duten guziak ez dira euskaldun osoak bilakatzen (%74,6 «bakarrik»)
- Biztanleria osoa eta adin tarte guziak kontuan harturik, %75ek frantsesa bakarrik ukan du / du lehen hizkuntzatzat

Unescoren 4. irizpidea: Hizkuntz komunitatearen kideek hizkuntzarekiko duten jarrera

Irizpide hau inkesta soziolinguistikoa «*Euskararen erabilera sustatzeari buruzko iritziak eta jarrerak*» atalari lotu behar da.

Atal honetan galdetu diren 5 iritziak aztertu gabe, har ditzagun xifre interesgarriak agertu dituzten bi iritzi.

Lehena: seme-alaben ikastereduei buruzkoa

Euskara frantsesa ikasgai nahi duen kopurua apal gelditzen bada ere (%19) azpimarratzekoa da kopuru horrek 7 puntu irabazi duela 2006 eta 2011 artean. Beste puntan, seme-alabentzat frantses hutsezko eredia nahi duen kopurua %20ekoa da eta 3 puntu galdu ditu azken bi inkesten artean.

Bestalde, «*euskaraz eta frantsesez*» eta «*frantsesez, euskara ikasgai*» ereduentzat kopuruak 2006tik 2011ra berdintsu direla kontuan hartzen badugu, argi da gero eta jende gehiago murgiltze ereduaren alde egiten duela. Errealitate hori ikastolek ezagutzen duten hazkunderan islatzen da.

Bigarrena: administrazioan sartzeko euskara jakin beharri buruzkoa

Hor ere ehunekoak batez bestea doi-doi gaintzen badu ere (%53), interesgarria da ikustea ehuneko horrek 2 puntu irabazten dituela 2006 eta 2011 artean. Eta are interesgarriagoa da kontuan hartzen badugu Iparraldean euskara ez dela ofiziala, hots, funtzionario batek ez duela euskara jakin beharrik Administrazioan sartzeko.

Atal oso horren irakurketa orokorra egiterakoan, puntu baikorrak eta ezezkoak agertzen dira:

Puntu baikorra: %39k pentsatzen du euskararen erabilera sustatu behar dela, alderantziz pentsatzen duena anitz gutiago delarik (%21).

Puntu ezezkorrak: 2006ko xifreak begiratzen ditugularik ohartzen gara %2ko jautsiera badela aldekoetan eta %3,2ko igoera aurkakoetan. Bestalde, eta hor dugu agian daturik kezkarriena, %40k axolagabekeria erakusten du, ez baita ez alde, ez aurka.

Unescoren 5. irizpidea: Hizkuntzaren erabilera arlo publiko eta pribatuan

Ikastearekin batera, hizkuntza baten erabilera maila ezagutzea biziki inportanta da haren bizitasuna neurtzeko. Euskararen erabilera euskaldunen artean begiratzuz gero, ikus daitekeen daturik baikorrena da gazteenen artean euskara frantsesa baino gehiago edo euskara frantsesa beste egiten duen kopurua gorantz doala urtez urte (%15 2001ean, %29 2011n).

Bainan denbora berean kezkarria da ikustea ehuneko hori biziki apal gelditzen dela. Eta adin tarte guziak kontuan hartuz gero, ohartzen gara %55ek frantsesa bakarrik (%9) edo frantsesa euskara baino gehiago (%46) erabiltzen duela.

Erabilera eremuka begiratzuz gero, kezkarria da ikustea euskara familian eta gizarte hurbilean bereziki erabiltzen dela, bainan zerbitzu publikoetan abantzu ez dela erabiltzen. Hori, dudarik gabe, zuzenki lotzeko da euskarak pairatzen duen aitopen publiko ezari, ofizialtasun ezari.

Alta, erabilerari bultzada bat emateko argi da euskarari aitopen publiko hori eman behar zaiola.

Bururatzeko

Ikusi dugun bezala, *V. Inkesta Soziolinguistikoak* datu itxaropentsu batzuk azalarazi baditu ere, bereziki euskaldun diren gazteenen artean (euskalduntzeari dagokionez edo familia transmisioari dagokionez), argi da euskararen berreskuratze osoari begira xifreak apalak direla.

Euskararen berreskuratze prozesuan herri mugimenduak bere zeregina badu eta betetzen badu ere, sar hitzan erran bezala botere publikoetatik eramaten den hizkuntza politikak baikorki eragin dezake xifre horietan.

Bainan horretarako, behar-beharrezkoa da gaur egun Iparraldean borondate onaren gaineko hizkuntza politika gainditzea eta beste urrats kualitatibo bat ematea.

Eta erran bezala, eta begi bistakoa bada ere, Iparraldea berreuskalduntzeko hiztun kopurua nabarmen emendatu behar da eta euskara erabiltzeko motibazioa sendotu behar da.

Ondorioz, hizkuntza politikak ondoko erronkei erantzun behar die:

- Nola egin hiztun osoen kopurua emendatzeko?
- Nola egin euskaldunek euskara erabiltzeko motibazioa ukan dezaten, eremu pribatuan (arloan sozio-ekonomikoan adibidez) eta pribatuan (administrazioetan eta abarretan)?
- Nola egin euskaldunak ez direnak euskarara erakartzeko, nola egin euskara ikasteko eta erabiltzeko gogoia ukan dezaten? Nola piztu motibazioa?

Hona pista batzuk:

Hiztunak nola sortu? Nola erakarri erdaldunak euskarara?

Haurrak: ikusiz jendeen %80k nahi duela beren haurrek euskara ikas dezaten (%20k bakarrik nahi du frantses hutsezko irakaskuntza), jende horri euskararen eta euskarazko irakaskuntza orokortua proposatu behar zaio. Etxearen eta eskolaren arteko distantzia edo eskolatzearen kostua bezalako parametroak ez dira trabak izan behar irakaskuntza hautu hori egin nahi duenarentzat.

Hala ere, eta kontuan hartuz jendeen %94k pentsatzen duela etorkizunean euskaraz edo euskaraz eta frantsesez mintzatu behar dela, argi utzi behar da ingurumen euskalduna izan ezean murgiltze eredia dela euskal-

duntzen duen bakarra, hots hiztun osoak sortzen dituen bakarra (eta ikusi dugun bezala, euskararen «salbatzea» hiztun osoetatik pasako da).

Helduak: haurrez gain, helduak ere euskaldundu behar dira. Gero eta gehiago dira euskara ikasteko hautua egiten duten helduak. Hauek lagundu behar dira eta oraindik hautu hori egin ez dutenak euskarara erakarri behar dira. Eta euskara euskalduntasunarekin edo euskal nortasunarekin lotzeaz gain, bada beste elementu bat ahalbidetuko lukeena motibazioa azkartzea: euskara ofiziala izatea. Izan ere, arlo publikoan lan egin ahal izateko euskara jakitea beharrezkoa izanez gero, adibidez, jende gehiago erakarriko luke.

Bainan anartean, dirua bezalako faktoreak ez dira frenoak izan behar euskara ikasteko nahia erakusten duenari ateak hesteko.

Euskararen erabilera, nola bultzatu?

Euskara arrunt normalizatzeko, haren erabilera bultzatu behar da eremu pribatuan zein publikoan. Eta erabilera bultzatzeko, euskaldunei eta euskara ikasten ari direnei guneak eskaini behar zaizkie.

Herri mugimendutik zenbait proiektu xutik jarri dira euskaldunek euskaraz aritzeko parada ukan dezaten eta euskara ikasten ari direnek mintzatzeko eta trebatzeko parada ukan dezaten. Aipa ditzakegu besteak beste aisialdien arloan *Uda Leku* elkarteak haur eta gazteentzat egiten duen eskaintza, AEK-k garatu mintzapraktikarako esperientziak...

Botere publikoei ere doakie arlo hori jorratzea, baita ere arlo horretan ari diren elkarteak laguntzea.

Bestalde, eta eremu publikoari dagokionez, inkestak ongi erakusten du gabezia handi bat badela zerbitzu publikoetan eta administrazioetan. Eta herriko etxeak bezalako egitura publikoetan euskara garatzeko urratsak eman eta ematen badira ere (*Euskal Konfederazioak* lehenik, euskara teknikarien sarearen bitartez gaur egun), hor ere argi da euskara ofiziala izan balitz bultzada handia lukeela erabilerak.

Euskara Iparraldean hizkuntza ofiziala izanen ez deno eta haren erabilera arlo jakin batzuetara mugatuko deno, bigarren mailako hizkuntza geldituko da frantsesaren ondoan eta horrek ez du lagunduko haren erabilera bultzatzen (eta ezta ere erdaldunak euskarara erakartzen).

Anartean, egitura publiko guzietan politika harmonizatua beharko litzateke. Gaur egun desberdintasun handiegiak ikusten dira eremu geografiko batetik bestera...

Bainan horiek hizkuntza politikaren gaian sartzan diren pista batzuk besterik ez dira. Gaia gehiago sakontzeko parada izanen dugu arratsalde honetako mahai inguruarekin, eta ikusten ahalko dugu zer neurri gehiago hartzen ahal den Inkesta Soziolinguistikoak azalarazi xifreak hobetzeko, eta beraz euskararen berreskuratzen prozesuan urrats kuantitatibo berriak emateko.

Euskararen balorazio kulturala

ETCHEGOIN, Pantxoa
Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria

Euskal Kultur Erakundea, 1990ean eraiki egitura bat da, hain zuzen euskara oinarritzat daukan kulturgintzaren bultzatzeko.

Lau diruztatzaille nagusi dauzka: Euskal kultura sostengatzen duen *Herriarteko Sindikata* (146 herri), Estatua (Kultura Ministerioa), Akitaniako Kontseilua eta Departamenduko Kontseilua.

2003az geroztik, Eusko Jaurlaritzatik ere diru-laguntza bat eskuratzen du mugaz bi aldeetako kultura harremanak bultzatzeko.

Euskal Kultur Erakundeak, gaur egun, 152 elkarte kide dauzka eta laguntzen ditu formakuntza, sorkuntza eta hedapena alorretan.

Lehen hamabost urteetan, *Euskararen Erakunde Publikoa* abiatu arte, euskararen sustatzen kulturgintzan bezainbat lan zuen.

Hona hemen, 11 puntutan, ekintza handien laburpena:

1. Inkesta soziolinguistikoak: *Euskararen Jarraipena I eta II*

Inkesta hauek egin ziren 1991n eta 1996an euskararen egoera aztertzeko Euskal Herri osoan, 16 urtez goitiko herritarren artean.

Iparaldeari zegokionez, *Euskal Kultur Erakundeak* bere gain hartu zuen inkesta haien kudeaketa, inkesta-egileak AEK-koak zirelarik.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 143-148. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hirugarren ikerketa batean ere parte hartu zuen: *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* ikerlana 1998-1999 urteetan eramana izan zen, 13-14 urtetako ikasleen artean.

Hiru inkesta haien bultzatzailea Eusko Jaurlaritza izan zen.

2. Hiru liburuxka: *Euskara agerian*

Iparraldeko euskaltzainekin lan egin ondoan, EKEk plazaratu lehen liburuxkan, herrien izenak eta oinarrizko bide seinaletzari buruzko aholkuak ematen zituen; bigarrenean, zerbitzu publiko eta pribatuetako seinaletzari landu zuen, eta hirugarrenean, herrietako kanpoko seinaletzari publikoak nolakoa izan behar zuen.

3. Erakusketa: *Euskararen hatsa*

Euskara, Euskaldunen hizkuntza (oinarrizko argitasunak) 8 orrialdeko dokumentu elebiduna.

4. Topaketak: *Langues et cultures régionales*

Frantziako baita bere uharteetako *Hizkuntza eta kultura ezberdinen ihardunaldiak* EKEk hiru aldiz antolatu zituen Euskal Kultura sustengatzen duen Herrien arteko Sindikatarekin batera: 1995ean Uztaritzen; 2000an Saran eta Hendaian; 2007an Kanbon (azken topaketa honetan *Euskararen Erakunde Publikoak* ere parte hartu zuen).

5. Haurrentzat aldizkari bat: *Xirrixta*

Euskal Kultur Erakundeak hartu zuen lehenbiziko erabaki handia: haur literaturari lehentasuna emanen ziola. Tolosako *Milan* argitaletxearekin negoziaturik, *Xirrixta* aldizkariari sorrera eman zion 1992an.

Bi urteren buruan, administratzaile batzuek galdeginik, *EKE*ek utzi zuen *Xirrixtaren* jabegoa eta Hendaian sortu zuten *Xirrixtazaleak* elkarte berriak hartu zuen haren kudeaketa; bestalde, gaztetxoentzat *Kometa* plazaratuz. Beste hiru urtez sekulako lanak erabilirik bi agerkari haiek bizirik atxikitzeko, harpidetza eskasez, azkenean elkarte desegin zuten.

Gazteluma – Iparraldeko 30 urtez petiko gazteak euskarazko liburuak idazten bultzatzeko, *EKE*ek, burtsa (beka) baten sortzea proposatu zion Elkar argitaletxeko ordezkariari.

EKE, Elkar megadenda eta Erkalanean Fundazioa 2000. urtean adostu ziren *Gazteluma* lehiaketan onartua izan zen idazle gazteari hiru laguntza mota eskaintzeko: 3.000 euroko diru-laguntza, epaimahaiko hiru idazleren aholkuak eta liburuaren argitalpena. Orain arte, 5 idazle gazte lagunduak izan dira. Bitartean adina luzatua izan da: 40 urte arte.

6. Itzulpenak herriko etxeentzat

Herriko etxeak (udalak) *EKE*ren oinarrizko partaideak dira. Haien diru laguntzarik eta sostengu moralik gabe, ez zen *EKE*rik izanen.

Horregatik, *EKE*ek lan handiak erabili zituen herrietako seinalakuntzaren itzulpenak segurtatzeko. Lanik sakonena, adibidez, Biarritzeko hiriarentzat egin zuen, gero Urruñaren aldi izan zen eta ondotik beste askorentzat.

Bestalde, Euskaltzaindiak galdeginik *Iparraldeko toponimoen bilketa, kudeaketa eta hedapena* ikerketa gotor bat burutu zuen, 2002an.

7. 1996-1997 urteak: bihurgune bat euskalgintzaren kudeaketan

Urte horietan, Garapen kontseiluak eta Hautetsien kontseiluak erabaki zuten Hizkuntza kontseilu baten sortzea.

EKE anitz inplikatu da gogoeta horretan, *Euskal Konfederazioko* ki-deekin.

Eztabaida biziak izan ziren jakiteko hizkuntza kontseilu horrek EKEren adar bat izan behar zuenetz, edo aparteko egitura bat, ongi bereizteko euskara eta euskal kultura.

Azkenean, bigarren hautua egin zuten euskalgintzako aktoreek eta Hizkuntza Kontseilua ideki zen Uztaritzen, 2001eko urte amaieran.

Bizpahiru urte iraun ondoan, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzeko xedea aitzinatu zuten hautetsiek, egiazko hizkuntza politika publiko baten bidean ezartzeko.

Hau 2004an eta 2005ean sortu zen eta hortik landa, Euskal Kultur Erakunde osoki euskal kulturaren alorrari lotu zen, euskararena EEPren gain utziz.

8. Euskara toki berrietan sartu

Euskara batere edo biziki guti entzuten zen tokietan, hala nola zentro komertzialetan, Baionako ospitalean, euskal kultura hurbiltzeko saioak antolatu zituen.

Azken hamar urte hauetan, Biarritzen, Hazparnen, Kanbon eta Donapaleun mediatekak eraikiak izan baitira, EKEk urtero proposamenak egiten dizkie eta euskarazko hitzaldiak, liburu aurkezpenak elkarrekin antolatzen dituzte, halaber, Donibane Lohizuneko Herriko etxearekin.

9. Euskara ikusgarrigintzan eta teknologia berrietan

Euskal Kultur Erakundeak betidanik euskararen presentzia azkarki bultzatu du, bai bere ekintza propioetan (ikus adibidez www.eke.org gunea), bai partaide dauzkan elkartekideei galdeginez ikusgarrien aurkezpenetan eta iragarkietan euskara ager dezaten.

10. *Eleketa* programa

Gaur egun, ahozko ondare sailean *Eleketa* programaren bitartez, adinetako jendeek beren biziko lekukotasuna euskaraz kontatzen dute, eta ondo-

rioz, grabatutako film horiek gazteei euskararen transmititzeko euskarri pedagogikoak bihurtuko dira.

Euskal Kultur Erakundeak lekukotasun biltze, artxibatze eta hedatze lan handi bat abiatu zuen 2007an, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak lan honen jabegoa hartu zuelarik 2009an.

Eleketa programari esker, gaur arte, 180 lekukotasun bilduak izan dira Ipar Euskal Herrian, baita ere tratatuak, Baionako Artxibategian entzun-ikusteko gisan.

Lekukotasun hauek eskoletako haurrei eta publiko zabalari ezagutarazteko, hanbat ekintza eramaten ditu Euskal Kultur Erakundeak, hala nola bi erakusketa obratu ditu: *Amikuztarrak mintzo* eta *Itsasturiak*.

Itsasturiak erakusketak 2010ean Donibane-Lohizune/Ziburun bildu itsas munduko lekukotasunak eskaintzen dizkigu, lekukoen hautaketa *Itsas Begia* elkartearen eta *Itsas Misioaren* laguntzari esker egin zelarik.

11. *Hogeita* ekintza labela: gazteak eta euskal kulturaren biziberritzea

16-29 urte arteko gehienek euskararik ez baldin badakite ere (%18k bakarrik euskara ulertzen edo mintzatzen dute), gazte gehienek euskal kulturaren eta lurraldearen ikuspegi baikorra dute. Kantuari, dantzari, musikari edo kontzertuei esker, gazteek euskal kulturaren ezagupen bat eta praktika bat badute. Hortik, nortasun erreferentzia azkarrak ateratzen dituzte eta horrek beren garapena laguntzen du.

Euskal Kultur Erakundeak (EKE) gazteen kultura dinamiken erakusle izango diren sorkuntza eta adierazpide artistiko baita trukaketa esparruak lagundu nahi ditu *Hogeita* programaren bidez. Paraleloki, epe ertain eta luzerako, EKEk gogoeta bat abiatu nahi du bere partaideekin, ondarearen transmisiorako tresna iraunkorren sortzeari buruz.

Egitaraua bi publiko motari zuzentzen da :

- 8-15 urte arteko haurrak eta nerabeak; haurrentzat, hautaturiko ekin-
tzek euskal kultur nortasuna osatzen duten osagaien transmisioari
lehentasuna ematen diote, sorkuntza saila baztertu gabe;
- 16 urtez goitikako gazteak

Gazteentzat, mota guzietako sorkuntzek lehentasuna ukanen dute, eta euskal kulturaren alor batzuk berrasmatzen ala berritzen dituzten egitasmoen eragile izateko ahalak eskainiko zaizkie.

Partaidetzak indartu: «Denen beharra badugu»

Euskararen kultura balorazioaren geroarentzat, zubiak eraikitzea baitezpadakoa da: alde batetik, erakunde publikoekin eta haien zerbitzuekin, baina ere euskararen eta euskal kulturaren eragile guziekin (elkarte, artista, baliabide iturri direnak, etabar);, halaber, *Euskararen Erakunde Publikoarekin*, eta nolaz ez Euskaltzaindia, *Iker* edo unibertsitateekin, ikerketak kultura elika dezan eta halaber, kulturak ikerketa.

Gaur egun, Euskal Kultur Erakundeak eginkizun berezi bat dauka: euskal kulturaren gehiago sarrarazteko politika publiko ezberdinetan (herriko etxeetan, herri-elkargoetan, erakundeetan,...) euskal kultura «dretxo amankomunean» sar dadin behin betikoz; adibidez, hezkuntza artistiko eta kulturaletako programetan, irakurketa publikoan, etabar.

Hizkuntza batek badu funtzio sinbolikoa, besteak beste adierazpen artistiko ezberdinetan murgiltzen dena. Oro har, euskal kulturaren geroa sorkuntzek baldintzatuko dute: gure gaitasun guziak bil ditzagun gure ondarearen biltzeko, haurrek, gazteek eta helduek hobeki ezagutu eta goza dezaten. Atzokoa biharkoan ikusi behar dugu!

Ipar Euskal Herrian euskara indarberritzeko hizkuntza politika

Mahai-ingurua

BIDART, Jojo
Moderatzailea

Mintzalariak:

MAITIA, Frantxua
EEPko lehendakaria

INDO, Paxkal
Seaskako lehendakaria

BORTHAYROU, Jakes
AEK

JOSIÉ, Joné
Kontseilua

BETBEDER, Titto
Euskal Irratietako zuzendaria

Galdea: Inkesta soziolinguistikak egiten direnetik ohartzen gara, hemen Iparraldean, euskaradunen kopurua eta proportzio beti apaltzen ari dela, 1991n %28 ziren eta 2011n %21,5. Hizkuntza Politikak bere helburuak betetzen ote ditu Iparraldean? Zertan ezarri behar da lehentasuna?

Frantxua Maitiarentzat egoera berrikustea merezi du: adin klase zaharretan direlako euskaradun gehienak atxemaiten eta horiek desagertzen ari dira urtetik urtera, bestalde euskararen transmisioak huts gune bat izan du denboran eta horregatik Euskararen Erakunde Publikoak xutik ezarri duen hizkuntza politikaren helburu nagusitzat hartu du «haurrak eta gazteak hiztun osoak bilaka araztea». EEPko lehendakariarentzat eskoletan

egin lana ari da bere fruitua emaiten eta, gaur egun, ikasle gazteenen gehiengo batek %58 sistema elebiduneko erakaskuntza segitzen du, %42 zirelarik duela 5 urte.

Landua den beste arloa da euskararen erabilpena sustatzea: bai hiri edo herri elkargoetan lanean ari diren euskara teknikarien sarearen bidez, bai eta ere zerbitzu publikoetan edo parapublikoetan gogoetatzen ari denaren bidez.

Azkenik, EEPk laguntza teknikoa eta juridikoa eskaintzeaz gain, diru-laguntzak ere banatzen ditu bere diru-kontua bikoiztu baita azken 5 urteetan (3,35 milioi eurokoa gaur egun) eta hitzarmenak finkatuak ditu, Eusko Jaurlaritzarekin batean, euskararen eragile nagusiekin.

F. Maitiaren ustez, hasiera batean elkarreeri esker lortu da euskararen salbatzeko beharrezkoa zen egituraketa minimoa eta orai politika publikoak du segida hartu behar. Politika horren eraginez pentsatzen baitu inkesta soziolinguistikoetan agertzen ez diren 16 urte petikakoetan eragin handiago ukanen duela! Geroak erranen! Eta biharko desafioa izanen da kanpotik etorritako jendeen euskalduntzea, konduan hartuz Iparraldeko gehiengo handi batek atxikimendu azkarra duela euskararekiko.

Jakes Borthayrou:

AEKko erakasle eta aspaldiko militantearentzat, azken urteetan aintziamenduak izan dira bai herri mugimenduari esker bai eta erakunde politikoeri esker, baina «arbolak ez du oihana gorde behar», gehiago dena Jakesentzat orohar «brikolatzen» edo txintxuketan baizik ez gira ari. Egoera aldatu nahi bada beste zerbaitegin behar da.

Jakesentzat, emanak diren datuen arabera, erritmo horretan segituz harkada asko edo berdin mendeak beharko dira, herri honetan, gehiengoan izan dadin euskaldun.

AEK-k parte hartu baitu, Garapen Kontseiluaren baitan azken urtean egin diren gogoetetan, Kultura eta Hizkuntza lantaldean egin dignosiak bi gauza argi erakusten ditu: alde batetik, hizkuntza alorrean lege babesa ezin-

bestekoa dela, eta bestetik, hizkuntza politika kudeatzeko Ipar Euskal Herriak bere instituzioa, hots, Lurralde Elkargoa, beharrezkoa dela.

Lantaldeak azpimarratu duenez, beste faserat pasatzeko euskararen eskaintza orokortu behar da bai erakaskuntzan, bai eta erabilpenean ere. Horretarako baliabide ekonomikoak ere beharrezkoak dira eta oraiko diru kontua ainitzez inportanteagoa behar da.

Azkenik, helduen erakaskuntzari doakionez, hiztunen sortzeko beranta aipatu du Jakesek, instituzioetatik gogoeta orokorra egin eta mezua argia zabaldu behar duela.

Paxkal Indo Seaskako lehendakariak, Iparraldeko jende gehiengoak gizarte eskualdun batean bizi nahi duela oroitarazi ondoan, herri mugimenduaren lanaren ondorioa azpimarratu du, inkestek erakusten duten euskaradunen adin-kurba berritz goitiarazteko ikastolek eragin zuzena ukan dutela adieraziz.

«UNESCOk dio, hizkuntza baten salbatzeko, jendartearen %30 hizkuntza horren erabiltzaile izan behar dela. Horretarako, gure lurraldean, murgiltze eredia zabaldu behar dela uste du Paxkalek eta ondoko 10 urtetako apostua da elebidun sarean dauden haurrak murgiltze ereduko hautua egin dezaten, hizkuntza politikaren bidez euskararen erakaskuntzaren eskaintza orokortuz eta hobetuz.»

Ttitto Betbeder:

«Euskal Herrian, Iparraldea da hiztun kopurua galtzen segitzen duen eskualde bakarra. Denbora berean, ezagupen instituzionalik ez duen eta euskararentzat lege babesik ez duen lurralde bakarra da».

Errealitate hori erakutsi ondoan, 16/25 urte artekoen berreuskalduntzearen erantzule zuzena herri mugimendua dela argi du Ttittok.

«Geroari begira, euskararen erabilpena sustatzen duten guneen azkarzea izan behar da hizkuntza politikaren lehentasuna. Krisia denboran hautuak egitekotan eta efikazitatearen izenean, hobe da euskararen indar-

guneen azkartzea osoki erdaraz ari diren guneetan euskara pixka bat ager-
raraztea baino».

«Bururatzeko, euskaraz ari diren hedabideen artean egitura bat sortzen
ari gira, instituzioek emaiten ez duten baliabide ekonomiko berria elgarre-
kin aurkitzeko».

Jone Josié:

Euskararen normalizaziorako hizkuntza politika beharrezkoa dela
oroitarazi ondoan, gaur egun, hemen Iparraldean gauzatzen ari dena ezin-
bestekoa bainan mugatua dela erran digu Jonek, eta hizkuntza politika
eraginkorrago bat lortzeko eskas diren 11 puntu zehatzu: administrazioa
integratuz, helburu eta epeak zehaztuz, instituzio eta herri mugimenduen
arteko konplizitatea sustatuz, espazio euskaldunak lagunduz. Hots, hiz-
kuntza eskubideen bermea segurtatu eta hizkuntzaren erabilera normali-
zatuko lukeena.

Euskararen kaltetan ezagutzen dugun diglosia egoeratik ateratzeko
«estatus egokia» emanez euskarari: gure lurraldean, euskararen ofizial-
tasuna onartuz.

Eginak izan diren aurkezpen eta oharren ondotik bi galde:

- Euskararen erakaskuntzaren eskaintza orokortu behar dea Iparraldeko
eskola guzietan?
- Lege bat beharrezkoa dea euskararentzat?

Frantxua Maitia:

«Frantziako presidentak hitz eman du Eurokarta «berretsi» edo aplikatu-
ko zuela. Horretarako Konstituzio aldaketa eginen da eta, egiten bada, hiz-
kuntza lege bat izanen da».

«Ez dut uste lege batek hemen egiten duguna baino gehiago ekar lezakee-
nik, bainan egia da hemengo egin moldeak segurtatuak ditaizkeela».

2014tik goiti, *Pays* egitura ez gehiago izanez, Iparraldearen geroa ez dela argi ikusten erran dauku Frantxua Maitiak, eta denak borrokatu behar garela instituzio berri bat ukaiteko. «Horrek ez digu gure legeen egiteko ahalmena emanen bainan hizkuntza politika gauzatzen lagundu lezake» segitu du erranez.

Maitiarentzat, euskararen aldeko motibazioaren azkartzeari eman behar da lehentasuna. Jendeen borondatearekin lanean segitu beharko baita, Euskararen Erakunde Publikoko lehendakariarentzat.

Paxkal Indo:

«Nahiz eta Eurokartaren aplikatzea Hollande lehendakariaren promesa izan den, ez dut uste lortuko dugunik. Gezurretan ari dira 1981ean bezala».

Jakes Borthayrou:

«Korsikeraren koofizialtasunarekin gertatzen ari dena interes handiz segitzen dugu. Nahiz ez duen lege baten indarra ukanen, aurrerapauso handia daitaie eta horrek erakusten digu, lurralde batean, hizkuntzaren estatutua eta egitura instituzionala lotuak direla».

«Frantses legean agertzen den esperimintatzeko eskubidea erabiliz, Eurokarta esperimintatzen ahal genuke, hemen Iparraldean, bainan horretarako tresna instituzionala beharrezkoa dugu».

Jone Josié:

«Frantses legean eskualdeko hizkuntzak Frantziako ondare bezala aipatuak dira, bainan artikulu sinbolikoa gelditzen da. Orain koherentziaz jokatzea galde egiten dugu podere publikoari, urrats konkretuak beharrezkoak dira».



Irakaskuntza elebidunaren erronka: hiztun osoak egitea

Mahai-ingurua

IDIEDER, Arantxa
Moderatzailea

Mintzalariak:

DUFAU, Aines
IKAS Euskal Pedagogia Zentroko zuzendaria

BOURGOIN, Paskal
Euskal Haziak elkarteko lehendakaria

OURET, Marie Andrée
Biga Bai guraso elkartekoa

GOROSTIAGA, Hur
Seaska elkarteko zuzendaria

Ipar Euskal Herriko egoera soziala kontsideratuz, irakaskuntzaren erronka, euskara plazara ekartzeko biziki garrantzitsua da. Hizkuntza baten transmisioa, familia eta eskolari esker egiten da. Kondutan harturik, ingurumen soziala nagusiki frantsesa dela, euskal hiztun oso baten sortzea, euskara bizirik atxikitzeko eta garatzeko, ezinbestekoa da.

Euskaltzaindiak antolatu jardunaldi hauetan, argiki, euskararen aldeko politika eraginkor baten beharra senditu da. Euskararen geroa jokoan delarik, aterabideak atxemaiteko garaia da, eta erakaskuntzaren kasuan, erreallitate desberdinak konfrontatu dira.

Erronka horien ezagutzeko, 4 gomita ziren mahai inguruan. Alde batetik, IKAS, euskal pedagogia zentroko zuzendaria den Aines Dufau, eta bestetik 3 irakaskuntza mota desberdinetako ordezkariak. Eskola elebidunarentzat, eskola giristinoetan, *Euskal Haziak* elkarteko, lehendakaria den Paskal

Bourgoin, eta eskola publikoetan *Biga Bai* buraso elkarteko Marie Andrée Ouret. Eta irakaskuntza osoki euskaraz egiten duen *Seaska* elkarteko zuzendaria den Hur Gorostiaga.

Geroari buruz ordu da prestatuak izan gaitzen, erakunde publikoek haien ardurak hartu ditzaten

IKAS pedagogia zentroa materialgintzan berezitua da. Uztaritzen kokatua den egoitza berrian, dokumentazio zentro bat osatu dute, bereziki erakasleentzat antolatuak. Bestalde ere animazioak antolatzen dituzte (erakasle ala haurrei zuzenduak).

Hastapenetik *IKAS* egitura berezia izan da, 1959. urtean kultur elkarte gisa zen, Frantzian ez da holako beste egiturarik, eta azken 10 urte hauetan onartua izan da elkarte gisa. Traba batekin hasi da lanean *IKAS*, eta duela zombait urte *Euskararen Erakunde Publiko*arekin eta Hezkunde nazionalarekin, izenpetu dute hitzarmen bat, zerbitzu publiko bezala agertuz (4 urtero ebaluazio batekin).

2005etik hasi den kudeantza aldaketa positiboki ikusten du Aines Dufauk, *EEPk* Bordeleren lekua hartu baitu.

IKASek egiten duen lana euskararen garapenerako garrantzitsua da. Liburuak osoki pedagogikoak dira, kondutan harturik, liburuak frantses Hezkunde nazionalaren eredian oinarritzen direla.

Erakasleentzat, euskaraz beharrezkoa duen materiala proposatzen dute, eta burasoentzat, liburuak disko batekin lagundurik eskaintzen. Diskoak, euskararen lotura zuzena ekartzen du haurrari edo burasoari. Euskara batuaz gain, xiberotarrei zuzendutako liburuen egitea beharrezkoa iduritzen zaie. Aines Dufauk azpimarratu duen bezala «ez da xiberotarraren promozionatzeko, baina eskolaren ikuspegitik loturaren atxikitze, inguramen hurbilaren eta eskolaren artean» eta hurbiltzen da «Iparraldeko batura».

Sorkuntzari ere, bere lekua egin nahi dio *IKASek*, nahiz sortzaile gutti diren. Sortzaileak izaiteko, irakurleak beharrezkoak dira «neke da irakurle egitea, eta irakurle izan behar dira idazleak (sortzaileak)».

IKASen kezka nagusia kualitatiboa gelditzen da. Garai batez egitura bereziak tratatzen baldin bazuen, gaur egun kualitatiboki mugatuak dira. Lehen mailako tresnak egiten dituzte, baina bigarren mailako ikastresnen egiteko ez dira gai.

Pedagogia zentroko buruak funtsezko inbertitze lana beharrezkoa dela azpimarratu du; «bada egiteko erakasleen formakuntzan, eta hori errana izan dugu, errepikatuko dugu, alimaleko ziloak badira, ez dugu pretentziorik (...) eta hori ez da gure esku, zoritxarrez, unibertsitate eta Hezkunde nazionalaren artean bada zerbait egiteko, bestenez hankamotz gelditzen da IKAS» «geroari buruz ordu da prestatuak izan gaitezen, erakunde publikoek haien ardurak har ditzaten». IKAS pedagogia zentroa mugatua senditzen da, bere helburuak ezin bururaino eramanez.

Dudarik gabe, ama eskoletan imertsioa hedatu behar da

Ipar Euskal herrian, 200 eskola publiko dira, eta erdiak elebidun sailak eskaintzen ditu. Orotarat, 17.000 haur dira eskola publikoetan, eta 5.000 irakaskuntza elebidunean.

Marie Andrée Ouret-ek (*Biga Bai*) bere egituraren balorazio bat egin du, erungongo egoera aztertuz, emaitzak landuz, eta aterabideak proposatuz.

Lehen maila bukaeran (11 urtetan), kausitu behar duten maila, hizkuntzen europar erreferentziaren A2 mailakoa izan behar da, oro har lortzen duten maila. Baina *Biga Bai*en ustez, maila oso arrunta da, ulermenaren aldetik eta mintzairaren aldetik «erraiten ahal da elebidunetik (lehen maila) ez dutela euskara menperatzen, eta euskalduntze hori oso azalekoa gelditzen dela, gure iduriko».

Askotan, elebidunean ikasten duten ikasleak euskaraz ari ez diren familietako haurrak dira. Haurrak ez dira hizkuntzaz aski inguratuak. Lehen ondorio zuzena da haurrak ez duela euskara barneratzen. Baina bigarren ondorio bat bada, erakasleentzat, baldintza horietan euskara erakastea biziki zaila dela. Klase batean ikasleen maila arrunt desberdina da, eta denbora gutti euskara lantzeko.

Biga Bai buraso elkartearen ustez, murgiltze sistemak ama eskolan emaitza onak ekartzen ditu, eta maila falta horri aterabidea ekartzen dio «dudarik gabe hori (imertsioa) behar litaik hedatu».

Biga Baien kezketan, Aines Dufauk altxatu duen problematika berriz aurkitzen du. Kualitatiboki mugatuak dira, erakasle formakuntza faltagatik. «Erakasleak orain baino hobeki formatu behar dira, erakaste molde berezi horri (...). Haurren ama hizkuntza frantsesa delarik, euskararen erakastea, molde berezi batean egiten da».

Eskola elebidunean, bigarren mailan sartzerakoan, euskararen leku eskasa argia agertzen da. 18 kolegio publiko dira, eta 12 elebiduna eskaintzen dutenak. Bainan lehen mailatik bigarren mailara pasatzerakoan, %40ak elebidun saila uzten du. Ikasleen 10etatik 6 galtzen dira bigarren mailara sartzerakoan. «Burasoak beldurtzen dira, 3 oren gehiago euskararendako, lan zamagatik». Horrez gain, oren parekotasuna ez da errespetatzen kolegioetan (3 ordu euskaraz / 3 ordu historia geografia euskaraz), aste osoa kondutan harturik, euskaraz egiten diren kurtsoak, laurdena baino gutiagokoak dira, erdia izan beharko lukeelarik.

Haur kopurua elebidunean, bigarren mailan, zinez ttipia da, orotara, 15 kolegioetan, 6garrenean (12 urte) 200 haur dira bakarrik, eta administratiboki antolatzea zaila da. Bestalde, maila duten erakasleak falta dira, eta bereziki Ipar Euskal Herrian plantatuak izaiteko.

Lizoetan bada eskaintza gutti, 13 lizeotatik 3 dira elebiduna eskaintzen dutenak. 66 ikasle dira, bainan M.A. Ouretek azpimarratu nahi izan du, emaitza onak direla baxoan, nahiz eta euskararen maila ez den baloratua baxoa pasatzeko momentuan.

Eskola elebiduna publikoan ikasleen eta bereziki burasoen fidelizatzea eskas da. Lehen mailan, eredu elebiduna segitzen dutenak ainitz badira, bigarren mailan ainitz galtzen dira, euskara ikasleen bizirik desagerraraziz. Burasoen lekua garrantzitsua da hemen, euskara ez baita aski baloratua, gehientzat ez baita beharrezkoa. Ikuspegi hori aldatu behar da, burasoen dudak, edota arrangurak elkarrizketa bidez aldatuz. Horrez gain, ingurumen frantses huntan, euskara hiztun osoen sortze helburua ez du lortzen. *Biga*

Baiek azpimarratzen du «ez da aski oren euskaraz, erraiteko zinezko erakaskuntza elebiduna dela».

Biga Baien ustez, elebidun sailak behar du barnetik azkartu eta egituratu, ahal gehiagorekin.

«Herrialde hizkuntzetarako manatzen duen legedia, egokia ote da? Lege aldaketa bat beharrezkoa ote da? Eskaintza elebiduna eskola guzieri hedatu behar ote da?». Galdera horiekin bukatu zuen bere aurkezpena eta gogoeta M.A. Ouretek.

Zergatik balio du euskaraz mintzatzea eskolatik kanpo?

Euskal Haziak elkarte eta *Biga bai* elkarteen artean, problematika berdinak aurkitzen dira. «Eskola elebidunak euskal hiztun osoak sortzen ote ditu?» galderari ez du erantzunik atxeman oraindik eskola girstino elebidunetako burua den Paskal Bourgoinek.

Euskal Haziaken ikasleak 32 eskola, 10 kolegio, 3 lizeotan banatuak dira; 2.900 ikasle dira euskaraz eskolaturik direnak, eta eskolen erdia elebiduna da.

Hemen ere mugak argiak dira, klase elebidun baten sortzeko 3 baldintza beharrezkoak dira: zuzendariaren nahikeria, erakasleena eta, erran gabe doa, burasoena. *EEP*ren helburua, hiztun osoak sortzea da. *Euskal Haziak* elkartearen helburua, elebidun osoak sortzea, bi hizkuntzetan ber maila ekarriz. Bainan euskarak ez du leku ofizialik, eskola hauetan. Paskal Bourgoin: «ainitzetan bada gela elebidun bat, bainan ez du hortakotz erran nahi eskola elebiduna denik».

Hizkuntza politika baten beharra senditzen du elkarteak, hiztun osoak egiteko. Ez du bere burua gai ikusten, eskola elebidunaren emaitzak neurtzeko. Bestalde, A2 eredia (euskara maila neurtzeko) ez da sistema desberdinak konparatzeko, tresna hoberena. «Ez dakigu gure haurrak euskalduntzen dituen ala ez».

2 arazo nagusi azpimarratu nahi izan ditu Paskal Bourgoinek: burasoek hautatzen dute, haurrak elebidunean ala frantsesa hutsean uztea, eta etxetik hurbil izan behar da. Postu bat idekitzerakoan, frantsesa galtzen da, eta

horrek segidan eragile desberdinak blokatzen ditu. Erakasleen eskasa, eta formakuntza falta ere arazoetan sartzen du. «Eskaeratik eskaintzara pasa gaiten, sortu gelak, postuak galdu gabe».

Euskal Haziak elkarteko ordezkariak, galdera ainitzekin bukatu du bere hitz hartzea.

«Zergatik balio du euskaraz mintzatzea eskolatik kanpo?»; «Zergatik indar bat egin etxean, eskolan euskara ikasten baitu gure haurrak!» Eskola elebidunak ekartzen duen «ilusioa» agertzen da hemen. Bainan euskararen presentzia ttipi hori ez da aski hiztun osoak sortzeko. Hortan sartzen da euskararen lekua gure gizartean, eta baloratzearen beharra, izan ikasleen ikuspegitik ala burasoen ikuspegitik.

Josean Artzeren esaldia txarra da, euskaldunak kulpabilizatzen ditu. Euskaldunari medioak eman behar zaizkio euskara baliatzeko, euskararekin den kulpabilitate hori galtzeko

«Hizkuntza bat ez da galtzen / ez dakitenek ikasten ez dutelako, / dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik». Euskaldun ainitzek erreferentzia gisa ikusten dugun esaldi horrek, *Seaskako* zuzendaria den Hur Gorostiagaren ustez, euskaldunon kontrako desbalorizazio sistema hori azkartzen du, gaur egun baliabideak falta baitira euskara biziarazteko. Ipar Euskal Herrian, ingurumena kasik osoki frantsesa da, telebista bezalako medio batek hori haundizki azkartzen du.

Hizkuntza politikaren bigarren fase batera pasa behar dela uste du Hur Gorostiagak, euskaldunen «bizi halabehar» hori hausteko. Ipar Euskal Herriko bi irratien egoera konparatu ditu «ohitu gira (...) Euskal Irratietako kazetari batek badu zinezko gaitasuna, bi hizkuntzetan egiteko, euskalduna da, *France Bleu*koa frantses hutsa izanen da, bainan Euskal Irratietakoa normala da, 3 aldiz guttiago pagatzea, baldintza duin batzu gaur egun errespetatzen ez direnak».

Euskara beti bigarren mailan gelditzen da, euskal hiztun osoak sortzea duelarik helburu *EEPk*, eta euskara plazara ekartzea, baliabideak oso murritzak dira.

Seaskako zuzendariak azpimarratu du, euskalgintza bidegurutze batean dela, ez da inoiz hain indartsua izan, gizarteak erakutsi du euskararekiko duen lotura, baita hautetsiek ere (instituzio baten beharra, legedia bat, euskara ofiziala). Euskalgintza azkarra da bai, bainan arnasik gabe.

Euskararen Erakunde Publikoaren errola azkartu behar da «ausardia behar dugu, Pariseren zain egon gabe, *EEP* bidelagun ukan behar dugu, ausardia hortan, diru banatzaile baino gehiago izan behar du». Euskalduntze «misioa» ez du beregain hartzen ahal *Seaskak*, geroz eta gehiago ikasle dira bai, bainan ahal guttiago.

Seaska federazioan 30 ikastola dira, 3.000 ikasle, eta ekitaldi ainitz (*Olenzero Park, Herri Urrats, Integrazio Batzordea*). 400 bat langilez osatu «enpres» horren barne 210 erakasle, urtero %6 ikasle gehiago direlarik.

Gaur egun ikastolak legez kanpokoak dira (*Fallox* legea dela medio), murgiltze eredia legez kanpoko da, ikastolak, eskola pribatuak dira, eta herriko etxearen nahikeriaren esku.

Seaskak ere euskararen balorazio falta senditzun du, ikastolan euskara ikasten da, bainan baxoa pasatzerakon, ingelesak balore haundiagoa du.

Hizkuntza politika aro berri baten alde joatera beharrezkoa da konplexurik gabe, euskara biziara nahi dutenen artean.

Euskara jalgi hadi plazara, euskaldunen nahikeria da bai, bainan bide hortan segituz gero, Ipar Euskal Herrian, euskarak indarra galduko du, eta euskaldunak hatsanturik geldituko dira.

Hizkuntza bat ez da ezer hiztunik gabe, bainan hiztunek, euskal ingurumen bat behar dute, «hizkuntza erkidego» bat. Burasoak frantsesak baldin badira, sail elebidunean den haurarentzat, euskara bere biziaren %25 barrik izanen da. Gilbert Dalgalian linguistak argiki erraiten du holakotan ez dela hiztun oso bat sortzen ahal.

Horregatik *Biga Bai* eta *Euskal Haziak* elkarteek ama eskolan imertsioa plantan ematea beharrezkoa ikusten dute. Bainan ingurumen frantsesa delarik, «imertsio oso» bat ez da inoiz imertsio osoa. Oreka bat sortzen duen

imertsioa da, irakaskuntza eta eskola ingurumena osoki euskalduna badu ere, %50, karrikako ingurumena, aktibitateena edota familiarrena frantses ingurumena da.

Euskararekiko balorazio lan azkar bat egin behar dela agertzen da hitzar-tze hauen ondotik. Euskara beti bigarren mailan gelditzen da, aukera bat edo exotismo bat, frantsesa sakratua delarik. Buraso batzuek haurrak elebi-dunetik, edo imertsiotik kentzen dituzte pentsatuz euskara dela arazoa. M.A. Ouretek buraso batzuen adibidea emaiten du «ene haurrak ez du ulertzen Matematika, eta hori euskaragatik».

Berriz ere euskararen balorazio falta argia da, eta buraso elkarteek, ezinbesteko lana dute egiteko. Euskara baloratu behar da, plazara ekarri behar da bai, baina frantsesaren «nagusitasun» tendentzia hori hautsi behar da. Ahantzi behar ez dena euskara gure hizkuntza dela, euskaldun egiten gaituena.

Ipar Euskal Herriko erakaskuntzaren inguruko elkarte eta zentroak gogotsu dira, baina Hur Gorostiagak dion bezala, gaur egun hizkuntza politikan brikolajea edo merke lana egiten da. Euskara ahulegia da, egitura bakotxa bere aldean gelditzeko, bereziki lege babesa falta delarik.

Ondorioak

ALEMAN, Sagrario
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

Inkestetako datuetatik, eta eguneroko lanean aritzeak ematen digun ikuspegitik honako ondorio hauek ateratzen ahal ditugu:

2011ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuak Ipar Euskal Herrian ez dira onak, euskararen gainbehera ez baita bururatua. Halere, 1991z geroztik egin direnetan, batetik bestera euskaldunen kopuruak bi puntu galtzen zituen aurreko inkestetan, eta oraingoan, puntu bakar bat. Itxaropenerako datuak ere badira, bada, azkeneko honetan.

Gaurko hizkuntza politikaren helburu nagusia “hiztun osoak” erdiestea izanik ere, inkestako datuetan ageri da hizkuntzaren kalitatea behera doala. Horri aurre egiteko, kalitatea indartzeko, ama-eskola guztietan murgiltze eredu jarri beharko litzateke. Euskalduntzen duen eredu, murgiltze eredu da eta.

Hiztunak gaitasuna behar du mintzatzen den hizkuntzan, eta trebetasuna edo gaitasuna izateko erabili egin behar du hizkuntza hori. Erakundeek eman beharko diete herritarrei euskara erabiltzeko aukera eta erraztasuna.

Erabilera sustatu behar dela dioen ehunekoa sustatzearen kontra dagoe-na baino askoz handiagoa da.

Lehen, familia bidezko transmisioa zen nagusi; orain, aldiz, eskola bidezkoa. Horregatik, familiako transmisioa indartzea beharrezkoa da eta transmisio hau eskolaren bidez egiten denarekin uztartzea.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 163-164. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskara eta euskal kulturaren transmisioa elkarrekin landu behar dira. Kulturaren etorkizuna sorkuntzan dago.

Instituzio eta gobernuek duten jarrera eta egiten duten hizkuntza politikari buruzko datuak ere jaso beharko lirateke inkesta hauetan.

Euskara zerbitzu publikoetan ez erabiltzea kezka garria da eta, aurki ere, ez erabiltzea euskararen aitorten publiko ezari lotzen ahal zaio. Lege babesa beharrezkoa da. Euskarak hizkuntza ofiziala behar du izan, arlo guztietan erabili daitekeena; bestela, bigarren mailako hizkuntza izanen da eta horrek ez du lagunduko erabilera bultzatzen.

Herri mugimenduak bere egitekoarekin segitu behar du, nola ez. Euskalgintzak eta erakunde publikoek harremanak sendotu behar dituzte eta elkarrekin aritu. Hizkuntza politika ez da borondate onaren gainean bakarrik eraiki behar. Hizkuntza politika eraginkorragoa egin behar da: eskaintza orokortu, bai irakaskuntzan, bai eta erabileran ere; euskararen arnasmuneak indartu...